

## Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Adierazpena onartu dute Bartzelonan

Ekainaren 6tik 9ra bitartean, mundu guztiko gobernuz kanpoko 61 erakunde, 30 PEN Club eta hizkuntz zuzenbideko 40 aditu bildu ziren Bartzelonan Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Konferentzian. Bertan 52 artikuluko testu bat onartu zuten aho batez: Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Adierazpena. Berau orain dela hiru urte hasitako prozesu mamitsu baten fruitua dugu. Adierazpenak, besteak beste, hizkuntzen berdintasuna aldarrikatzen du inongo bereizketarik egin gabe. Orain, Bartzelonan bildutakoen erronka Nazio Batuen Erakundeak testu hori onartzea da.

13. orr.



**Jose Maria Setien:**  
"Bakea lortzeko biderik egokiena bake hori benetan desiratzea da"

Jose Maria Setien Donostiako gotzaina da 1979tik. Behin baino gehiagotan indarkeriari babesa ematea leporatu diote hainbat politikok eta kazetarik. Berak, berriz, ez dio "inori asmo manipulatzailerik egotzi nahi". Bere asmo sendo bakarra "mezu kristaua ez apurtzea, besterik ez da". Gure gizartearen arazoez oso arduratuta bizi da, eta, arazo horien artean, langabeziak, indarkeriak, gizarte-konpromezurik gabeko indibidualismoak, HIESak, eta bakea ekar lezakeen negoziazioak kezkatzen dute bereziki apezpikua.

10. orr.

## Noraino hel daiteke pribatizazioa zerbitzu publikoetan?

Aznarren Gobernuak lanean hastearekin batera, nolabaiteko psikosia sortu da pribatizazioen inguruan. Zenbaitetan beldurra edo ikara ere bada. Gobernuak, enpresa publikoen makina herdoildua koipeztatu nahian, pribatizazioaren bandera zabaldu du lau haizetara. Oso bestelakoa da, ordea, sindikatuen ikuspuntua. Beraien iritziz, pribatizazio politika hori irizpide ekonomizista hutsean oinarritzen da, gizartearen izan dezakeen eragina kontuan hartu gabe. Zein da, beraz, zerbitzu publikoen pribatizazioak izan behar duen muga gaindiezina? Ba al dago mugarik?

20. orr.

**IVAP**  
HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

**5**

**Josep M. Sanmarti:**  
Europako doktrina berri-berriak estaturik gabeko hizkuntzekiko jarrera demokratikoa du helburu.


**7**


**Rufino Iraola:**  
sinbolismo hutsean oinarritzen den euskaltasunaren etsai amorratua.

**12**

**Laura Mintegi:**  
Euskal Herriko Unibertsitatea euskalduntzeko plangintza paper erre ote?

Erakunde Autonomiakuna







**Zuzendaritza:**  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**  
Joseba Lozano

**Diseinu Grafikoa:** Cabinorte

**Zenbaki honetako lankideak:**  
Jon Agirre, Lutxo Egia, Luis Elizondo, Enkar Etxazarra, Juan Garzia, Jorge Gimenez, Enrike Gorrotxategi, Juan Kruz Igerabide, Rufino Iraola, IZO, Eugenio Lasarte, Joseba Lozano, Laura Mintegi, Joseba K. Pérez de Heredia, Josep M. Sanmarti.

**ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ**  
aldizkarian argitaratutako artikulua berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

**ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ**  
aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

# ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

**Legeko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea  
Adriano VI, 20. 01008 VITORIA-GASTEIZ. Tlf. 18 76 00. Faxe: 18 76 02.

## PERTSONAIA



# Jose Luis Zumeta, pintorea: "Gure nahia umeen moduan pintatzea da"

Ez dira lau oilo mende honetako artista euskaldunak: Jorge Oteiza, Eduardo Chillida, Remigio Mendiburu, Rafael Balerdi, Agustin Ibarrola, Nestor Basterretxea, Jose Antonio Sistiaga, Amable Arias... eta, jakina, Jose Luis Zumeta. Gaztetan liluraturik gelditu zen, Parisen punta-puntako artisten artelanak ikusita. Garai hartan erabaki zuen pintorea izatea. Esan eta egin. 1965ean "Gaur" taldean sartu zen, eta 1968tik aurrera bere erakusketak ugaritzen hasi ziren. Noiz abstrakzioan murgildurik, noiz figuraziotik hurbil, Jose Luis Zumetaren lanak ezinbesteko erreferentzia dira euskal arte modernoan.

### Noiz sortu zitzaizun marrazteko grina?

Txiki-txikitatik sortu zitzaidan. Eskola garaian marrazkiak egiten gogoratzen dut neure burua. Erdaraz ez nekienez, agian, komunikatzeko tresna gisa piztu zitzaidan zaletasuna.

### Eta noiz erabaki zenuen pintorea izatea?

Hemezortzi edo hemeretzi urterekin. Garai hartan moldiztegi batean niharduen lanean, eta lana utzi nuen pintorea izateko.

### Zer da Picasso zuretzat?

Jainkoa. Mende honetako pintorerik handiena.

### Stockholm-en, Londresen, Parisen..., leku askotan bizi izan zara. Zein ondorio ekarri dizu horrek?

Gauza berriak ezagutzea, jakina. Parisek, behinik behin, indarra eta ilusioa eman zizkidan. Hasiera hartan, herri horretan ezagutu nituen Europan eta Ameriketara egiten ari ziren gauzarik interesgarrienak. Euskal Herrian, ordea, artea oso klasikoa zen, eta kanpoan bizitzeak, beraz, une hartako nazioarteko giroa ezagutzeko aukera eman zidan.

### Zer da pintura?

Koloreei eta formei garrantzirik gehien ematea.

### Zer dakarkizu gogora "Gaur" taldeak?

Niretzat bultzada handia izan zen. Ni baino jende helduagoa ezagutu nuen: Oteiza, Chillida, Mendiburu, Balerdi, Sistiaga... Ni gaztea nintzen eta hark, nolabait, segurtate eta konfiantza eman zizkidan. Asko ikasi nuen beraiekin.

### Bideragarria litzateke gaur egun "Gaur" taldea?

Politika aldetik inondik ere ez. Taldeak garai

hartako mezu politikoa bereganatuta zeukan. Estetika aldetik-edo, berriz, beti izaten da aukera.

### Ba al dakizu umeen moduan pintatzen?

Nahi nuke! Pintore guztiok heziketa akademikoa dugu. Oso zaila da umeen moduan pintatzea, baina hori izaten da beti gure nahia.

### Zuhaitzak urdinez margotu zenituen eskolan.

Bai, pintura berderik ez nuelako edo gogoa neukalako, ez dakit zergatik. Kontua da zuhaitzak urdinez pintatu nituela, eta mojek zigortu egin nindutela.

### Zein ekarpen egin diozue Euskal Herriko artistek arte modernoari?

Euskadin, behintzat, "Gaur" taldeak berrikuntza ugari ekarri zuen. Hura aldaketa ikaragarria izan zen zalantzarik gabe. Mugimendu hark, nolabait, gizartearen onarpena ekarri zien gure lanei.

### Garai batean Usurbilgo ibaiko harriak margotu nahi zenituen, ezta?

Nahi bai, baina sekula ez nuen halakorik egin. Zaila zen eta oso garestia.

### Hitz gutxitan, zer da Oteiza?

Oso garrantzitsua. Zenbait alderditan oinarri-oinarrizkoa.

### Eta Chillida?

Eskultore izugarria. Handia.

### Remigio Mendiburu?

Baita ere, handia.

### Balerdi?

Beharbada mende honetako euskal pintorerik onena.

### Eta, azkenik, Sistiaga?

Gauza asko ikasi nituen bere eskutik Parisen.

## Eusko ikaskuntzak zuzenbideari buruzko euskarazko aldizkaria kaleratuko du aurki

Josu Erkorekaren zuzendaritzapean eta zuzenbidean adituak diren euskaldun talde batek osatzen duen Erredakzio Batzordearen laguntzaz, euskarazko aldizkari juridikoa kaleratzeko asmoa du Eusko Ikaskuntzak. Argitalpen berri honen xedea zuzenbidearen zein hizkera juridikoaren inguruan euskaraz egindako ikerketa eta dibulgazio lanak bultzatzea da, eta era horretan esparru desberdinetako euskal juristen topagune bihurtzea. ELEA, Euskal Legelarien Aldizkaria, sei hilabetez behin kaleratuko da, eta zuzenbidea hainbat ikuspegitik jorratzea izango du helburu: doktrina-lanak, epaien komentarioak, euskara juridikoari buruzko idazlanak eta azken argitalpenei nahiz zuzenbideari buruzko berriak. Urriaren amaiera aldean kaleratuko den lehen alerako lankidetzak aurkezteko epea bukatu da dagoeneko, baina gaurdanik aurkeztu daitezke bigarren alerako lanak.

ELEAren edozein ataletan lanik argitara eman nahi duenak kontuan izan beharrekoak honako hauek dira: doktrinari eskainitako ataletan, lanak gehienez ere 25 orrialdetakoak izan daitezke, eta, epaien iruzkinak, berriz, gehienez 7 orrialdetakoak. Euskara juridikoaren atalerako, ikerlan, iruzkin nahiz berri emateak onartuko dira, eta azken argitalpenen atalerako, berriz, era guztiak idazlanak. Bestalde, lanak aurkezteko intentzioa dutenek behar izanez gero, Eusko Ikaskuntzak badu hizkera juridikoan lagundu diezaiekeen aditu bat.

ELEAn edonolako lankidetzak argitaratzeko interesa duenak edo argibide gehiago nahi duenak, Eusko Ikaskuntzaren Donostiako bulegora jo dezake (Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20.007 Donostia), edota (943) 31 08 55 telefonora deitu.

**Martin Gartzandia**

Eusko Ikaskuntza

## Gogoan itzulinguruka

Orain dela bi ordu inguru asko dela gertatu gabeko zerbait jazo zait, mahaiaren ertz batean pilatuta egoten den paper multzoa mehetzen ari baitzen, eta esan bezala, azkenean orririk gabe geratu da pila hori. Alegia, itzuli beharrekorik gabe geratu naiz.

Ez naiz lanean egunkaria irakurri zalea, jakina baita administrazioan dihardugunok lanera joan bai baina lanik ez dugula egiten –hala diote nire lagunek–, eta uste hori dela eta, zer ote da kontzientziak agintze hori, idazteko teknikei buruzko liburu bat, idaztearen sukaldaritza-edo, hartu dut esku artean, eta horrek honetaratu nau, horrek jarri nau idazten. Izan ere, liburua irakurtzen ari nintzela, denbora galtzen ari ote nintzen pentsatu dut, alegia, bene-benetako administrazioiko langile ote nintzen pentsatu dut, ez baitidate irakurtzeko ordaintzen.

Baina ez da hori izan gogora hurbildu den urrutiko hegazti bakarra, hauxe baita itzultzen bukatu berri dudan testu bateko esaldiak dioena, jatorrizkoan ere letra etzanaz ageri dela: *“itzulpen lan horren alerik ederrenak bildu eta hazitarako gorde behar dira, glosario, terminologia, fraseologia, estilo-irizpideak... aberasten joateko. (...)”* Ez dirudi gauza larririk dioenik, baina lau urte t’erdiz itzultzen ihardun ondoren nire izerditik sortutako ale eder horiek –halakorik baldin bada bederen– non diren edo inorentzako gozagarri izan ote diren pentsatzen hasi naiz, ez baita broma. Zertarako balio izan ote du hainbat urtetako ihardunak? Inork somatuko ote du milaka lerro horietan esaldiz esaldi, hitzez hitz eta ideiaz ideia egindako ahalegina?

Txorakeria dirudi, baina hotzikara ere eragiten du hainbat urtetako lana, asmo eta borondate jakin batekin aurrera eramandako lana, ezertarako ez bailitzan gordeta geratzeak. Herritarren kexurik ez jaso izana ondo egindako lanaren erakusle izan daiteke, baina isiltasunak beste gauza asko ere adierazten ditu.

Gogoeta antzeko honek sakonagoa beharko luke, baina nire mahaiaren ezker aldeko ertzean beste orri sorta bat utzi dute, dokumentuaren izena eta zein arlotakoa den idatzita dituela goiko aldean. Gaur ere ezin izango dut ale ederrak biltzen hasi, idaztearen sukaldaritzari buruzko liburuak ere beste baterako beharko du, baina ez zait berriz gogora etorriko behar bada ez naizela egin beharko nukeena egiten ari. Noiz geratuko ote naiz berriz itzultzekorik gabe.

**Joseba Urkia**

Gasteiz

## JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA



Gutunak makinaz idatzi eta, gehienez ere, 15 lerro izango dituzte. Gutunarekin batera, nahitaez, igorlearen izen-abizenak eta NANA adierazi beharko dira. Jasotako gutunak ez dira itzulliko. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du gutunak laburtuta argitaratzeko. Halaber, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak bere erantzuna eman ahaliko du sail honetan bertan.

## EUROPA BATUAK BADU, DAGOENEKO, HIZKUNTZEN DOKTRINA

1961.ean artean ere Europako Kontseiluak hizkuntza-politika estatu bakoitzaren, eta ez besteren, eginkizuna zela uste zuen, eta ez hori bakarrik, ordena publikoaren esparruko gaitzat ere jotzen zuen, gero eta gehiago zirelako hizkuntzekin zerikusia zuten gaiak, beste batzuekin batera, sarritan eztabaidagai bihurtzen zituzten taldeak, batez ere lekuan lekuko hizkuntzen eremuan. 1981. urtean bertan, Europako Kontseiluko Ministroen lantaldeak Europako Legebiltzarrak egindako 928 zenbakidun proposamena ("Cirili-ren Txostena" deitutakoa) artxiboan gordeta utzi zuen, lantaldearen ustez hizkuntza-politika estatu bakoitzaren barneko arazoa zelako.

### Hizkuntza-aniztasuna hezkuntzako tresna baliagarria da

Estatuetako gobernuak aspaldidanik egon dira miopiak jota, eta historian zehar estatuko hizkuntza bakarraren alde, edo hizkuntza nagusi baten alde egin izan dutenez, ez ziren ohartu oraingoan egoera aldatzen hasia zela. 1975. urtean eman ziren lehenengo urratsak, Helsinki-ko Agiri Bakunari esker. Agiri horretan Europa kontzeptuan kulturak zuen garrantzia indartu eta bertan behera geratu zen "gera hotzaren" inguruko teoria, hau da, eskualde mailako eskakizunek estatua ahuldu egiten zutela zioen teoria, Soviet Batasunaren etengabeko mehatxua ikusten baitzuten. Lau urteren buruan, Europako legebiltzarkideak aukeratzeko lehenbiziko hauteskunde zuzenak izan ziren, eta eurodiputatuen talde bat, eskualdeetako alderdien ordezkariak osatutakoa batez ere, Europako hizkuntzen inguruko lehen eztabaidak sortzen hasi zen. Ipar Irlandako John Hume izan zen lehenengoa 1979an.

Ordurarte, Europako Elkarteko erakundeek hizkuntzen aniztasunak eragindako zailtasunak konpontzeko, "hizkuntza-aniztasun integrala" printzipioa erabili zuten, alegia, estatu elkartekideetako hizkuntza ofizialak Europako Elkarteko hizkuntza ofizial eta lan-hizkuntza bihurtzen zituzten automatikoki. Horrek, jakina, itzulpengintzan ahalegin benetan handia egin beharra zekarren, eta eginkizuna gero eta konplexuagoa zen gainera, beste estatu batzuk sartu ahala.

Laurogeiko hamarkadan, giza eskubideez gero eta gehiago hitz egin eta eskualdeekiko arreta areagotu egin zenez, hizkuntzei buruzko eztabaida ere gero eta zabalagoa izan zen bai estatuetan eta baita Europako erakundeetan ere. Bestalde, pedagogoen, Quebec-eko esperientzian oinarrituta, garbi utzi zuten, lehenago besterik esaten bazen ere, elebitasuna ez zela kaltegarria eskola-umeentzat, eta hizkuntza-aniztasuna hezkuntzako tresna benetan baliagarria izan zitekeela defendatzen hasi ziren.

Egoera hori izanik, Europako Legebiltzarrak 15 urte baino gutxiagoko tartean hiru adierazpen garrantzitsu onartu zituen: Arfé Gomendioa (1981), Kuijpers Txostena (1987) eta Killilea Txostena (1994), denak ala denak ere gutxiengoaren hizkuntzen eskubideei eta aginte publikoen betebeharreri buruzkoak. Europako Kontseiluak onartu dituen agiririk garrantzitsuenak,

berriz, hauek izan dira: lehen aipatutako 928 Gomendioa, Eskualde mailako edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Karta (1992) eta Nazioetako Gutxiengoak Babesteko Abiaturuko Hitzarmena (1994). Azken bi horiek baino ez dira estatuek derrigorrez betetzekoak, baina oraindik ez dira indarrean sartu, gutxienez bost estatuk berretsi behar dituztelako, eta ulertzen zaila bada ere, oraindik ez da lortu.

### Hizkuntzen arteko hierarkiaren aurka

Garbi dago Europako erakundeek gutxiengoaren hizkuntzen erabileraren inguruan onartutako berrogeita hamarretik gora agiriek benetako doktrina osatu dutela gutxika-gutxika, batasuna bera eratzen joan den neurrian, eta estatuak legez behartzeko indarririk ez badute ere agiri horiek, argi erakusten dute zein den jarraitu beharreko bidea. Orokorrean hitz eginda, Europako erakundeek hatsapen edo printzipio nagusiak eta doktrina orokorra finkatzen dute, estatuek konstituzioen esparrua eta/edo oinarrizko legeria jartzen dute, eta eskualdeetako edo toki mailako aginteez hizkuntza-politika aurrera eraman eta betearazteko arau zehatzak hezurramitzen dituzte.

Era berean, CSCEa ere (Europako Segurtasun eta Elkarlanari buruzko Biltzarra) egiten zituen adierazpenetan hizkuntzen inguruko doktrina hori berori jasotzen hasi zen, eta 1991tik aurrera, Europa erdialdean eta ekialdean sortzen hasi ziren demokrazien (Europako Kontseiluko kide dira gehienak) konstituzioetan eta hizkuntzei

buruzko legeetan gauza bera gertatu zen. Esandakoagatik, gaur egun Uraletan hasi eta Atlantikoraino hizkuntzentzako doktrina bakarrak balio duela esan daiteke. Beraz, estaturik ez duten hizkuntzen eskubideak betetzeko eskatzea ez da, egun, burges erromantiko batzuen eskabide zaharkitua, Europako doktrina berri-berria baizik.

Europa eraiki gabe dagoenez oraindik, hizkuntzekiko jarrera demokratikoa indartzea da kontua, hizkuntzen baitan hierarkiarik ez dagoela oinarri hartuta, eta berez eta besterik gabe dena delako hizkuntza besteak baino gehiago ez dela kontuan izanda. Ideia horien inguruan atzera egitea edo, zer esanik ez, galeraren bat izatea Europa kontzeptua hankamotz uztea izango litzateke, ideologien eta politikaren aniztasunean eta kulturen ugaritasunean oinarritzen baita Europa. Ideologian eta politikan dauden ezberdintasunak bideratzeko, hainbat urtetan zehar ahalegin handia egin baldin bada eta emaitza onak lortu, zergatik ez saiatu hizkuntzen aniztasunarekin beste hainbeste gerta dadin?

**Josep M. Sanmartí**  
Informazio-zientzietako doktorea,  
Madrileko Unibertsitate Complutensean,  
Europako Elkarreketako diplomaduna,  
Madrileko Eskola Diplomatikoan.  
Historiako lizentziatua, Bartzelonako Unibertsitatean.

# Agindua eta erabakia

## Nondik-norakoak

Erabakiak eta aginduak idatziz ematea jende gutxiren esku dago administrazioaren barruan (erabakia: zuzendariak, sailburuak...; agindua: sailburuak...). Dena dela, kontuan izan behar da agiri hauek idazten aipatutakoek baino langile gehiagok esku hartzen duela, eta administrazioan horrelako idazkiak oso ugariak direla. Ikus dezagun, bada, nola gauzatu bata eta bestea.

## Idazteko irizpideak

1993ko apirilaren 6an Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuak emandako aginduaren arabera, xedapenek kalitatekoak eta ulergarriak izan behar dute. Horrek guztiak bi helburu nagusi ditu: alde batetik, segurtasun juridikoa hobeto bermatuko duen hizkera garbia, zehatza eta objektiboa sortzea; bestetik, herri-tarrek berehala ulertuko dituzten lege-testuak argitaratzea. Hortaz, badirudi aginte publikoak, dagoeneko, argi eta erraz idaztearen garrantziaz konturatu direla; abia gaitezen, beraz, bide horretatik.

## Osagaiak

Osagaiak begira, oso antzekoak dira aginduak eta erabakiak. Hona biok dituzten atalak:

### ■ Izenburua

Atal honetan ahalik eta ondoen jaso behar dugu erabakiaren edo dena delakoaren gaia. Horretarako, izenburu laburra eta osoa (laburdurarik gabea) ematea komeni da. Bertan, ondorengoak adierazi behar dira: xedapen-mota (*ERABAKI* edo *AGINDU* hitzak hasieran ipini ohi dira); onarpen-eguna; agindua edo erabakia ematen duen organoaren titularrak (sailburua, zuzendaria...); edukia.

Adib.:

*ERABAKIA, 1993ko martxoaren 13koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena. Erabaki honen bidez, 1993-1994 ikasturteko euskarazko ikastaroetara dei egiten da.*

*ERABAKIA, 1993ko martxoaren 13koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 1993-1994 ikasturteko euskarazko ikastaroetara dei egiteko.*

Ikusten denez, puntuz bereizitako bi esalditan ematen da informazioa lehenengo adibidean, eta esaldi bakarrean bigarrenean.

Bide biak zilegi izanik, lehenengoaren aldeko gara gu, argi-agoa eta ulergarriagoa delakoan.

### ■ Azalpen-zatia

Izenik gabeko zati honetan edukiaren azalpen laburra egin behar dugu, eta, horrekin batera, erabaki edo aginduaren jatorri eta bultzagarri izan diren lege-oinarriak eta arrazoiak adierazi. Zati hau formula jakin batez amaitzen da: ... *honako hau ERABAKI DUT* (ekintza administratiboa denean)/... *ondorengo hau XEDATU DUT* (arau baten indarra badu).

### ■ Xedapen-zatia

Agindua eta erabakia osatzen dituzten xedapen guztiak, banan-banan, atalka eta hurrenkera egokian eman behar dira aditzera

(arau orokorrak eta garrantzitsuenak, lehenik; arau bereziak eta bigarren mailakoak, ondoren). Atal bakoitzaren aurrean, dagokion zenbakia eta *atala* hitza idatziko dugu (*1. atala*), eta atal bat baino ez badago *Atal bakarra*. Ahal izanez gero, izen labur bana emango zaie atal guztiei.

Atalak laburra izan behar du: gehienera jota, hiru edo lau lerroaldi; nolahi ere, deialdi, lehiaketa, oinarri eta horrelakoetan, atalen ordez honako hauek erabil ditzaitegu: *Lehena*, *Bigarrena*...

OSASUN SAILA  
2799

777/1996 ERABAKIA, martxoaren Sekoa, Osakidetza zuzendari nagusiarena. Erabaki honen bidez deuseztatu egiten da urtarrilaren 18ko 543/1996 Erabakia, alegia, Arrietako ospitaleko zuzendariaren lanpostua aukerako izendapenez betetzeko dei egiten zuten.

Osakidetza zuzendari nagusiak, urtarrilaren 18ko 543/1996 Erabakiaren bidez, Arrietako ospitaleko zuzendariaren lanpostua aukerako izendapenez betetzeko dei egiten zuten.

Nolanahi ere, Osakidetza zuzendari nagusiaren iazko ekainaren 28ko 931/1995 Erabakiaren bidez (1995eko abuztuaren 16ko EHAA, 155 zk.) lanpostu hori bete egin zen, eta, beraz, ez dago hutsik. Hori dela eta, Herri-administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.2 atalean ezarritakoaren arabera, honako hau

### ERABAKI DUT

Atal bakarra.- Arrietako ospitaleko zuzendariaren lanpostua aukerako izendapenez betetzeko dei egiten zuten urtarrilaren 18ko 543/1996 Erabakia deuseztatzea.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko martxoaren 5a

Osakidetza zuzendari nagusia  
Rufino Cerezo Sáenz de Santamaría

### ■ Azken zatia

Erabakien ondoren, jarraian datozen xedapenak jaso daitezke; beti ere, hemen adierazitako hurrenkerearen arabera: xedapen gehigarriak, aldibaterako xedapenak, indargabetzeko xedapenak eta azken xedapenak. Horiek adierazi eta gero, toki-egunak eta titularraren izenpea jaso behar ditugu.

Vitoria-Gasteiz, 1994ko azaroaren 15a

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria  
Yolanda Arbizu Mendiguren

Aginduan eta erabakian ezarritakoa zabalagotzeko eraskinik behar bada, izenpearen segidan eta zenbaki erromatarretan jarriko dugu. Eraskinen aipamenak xedapen-zatian egingo dira.

**Joseba Lozano**  
HAEEko administrazioko hizkeraren arduraduna

# Idazle

Ordenadorea piztu eta etorriaren zain nago idazten hasteko, pareko leihotik begira. Haize zakarrak dantzan darabiltzan pinu-arbolak, artzainak inguruko barrutian utzi dituen ardi ume egin berriak eta Ñañarriko haitzen biluztasuna baizik ez dut inspirazioari eragiteko. Gainera, nik ez daukat idazle askok beren lanen garrantzia markatzeko ipintzen dituzten sarrerako esaldi borobil horiekin hasterik. Esate baterako: "Yo escribo desde una perspectiva de compromiso con la fe" edo "Yo, como catedrático de ética, me dirijo a la opinión pública...".

Badira, bestalde, eginkizun handiak burutzeko obligazioarekin jaio izan balira bezala, Jainkoaren eta herriaren izenean idatzi eta idatzi gelditzen ez direnak. Onerako ala txarrerako, nire zoria ez da horrelakoa. Ez naiz idazle barrean gordetzea pena litzatekeen ideia jenialak bururutzen zaizkidalako; ezta inori lezio handiak eman nahi dizkiodalako edota nire idatzien bidez ezer konpon dezakedalako. Ziur nago, sekula santa letra apurrik izkiriatu ez banu ere, mundu honen jitea ez zela txintik aldatuko. Hala ere, zorionez, idazle naiz, nahiz eta, Gandiagarena parafraseatuz, beti ez naizen zorioneko idazle. Euskal idazlea. Baina, erdera utzirik, euskaraz idazten dudalako harro sentitu eta hain hantusteko izan ordez, zergatik ez pentsa, dezakegun apurra, euskaraz bakarrik dezakegula? Nik, behintzat, euskaraz hobeto moldatzen naizelako dihardut euskaraz.

Eta euskaraz bakarrik idazten dugulako, lanabesarekin ere baditugu aferak eta kontrako iritziak. Ni neu sintaxiarekin askoz ere zorrotzagoa naiz; zehaztasun eta oroitzapenen izenean, lexikoarekin oso zabal jokatu izan dut. Adibidez, erderaz ikasi aurretik neureganaturiko *barrundatu, kontsegitu, entenditu, segi, lista, ofizina, lapitza, karameloa, konejua, kolorea, sufritu, karnabalak, eskribitu, letu, pasioa, pizarra, pintatu...* inolako konplexu eta kezkarik gabe erabiltzeko moduko hitzak dira niretzat. Bai, erderakada gehiago darabil jendeak sintaxian lexikoan baino. Okerragoak iruditzen zaizkit: Eugik partidu ona *jolastu du*, bere burua hiltzen *saiatu zen*, trena etorri arte *denbora egiten* nago, aurtengo Tourrean mendi gehiago *faltan bota* dut, *pilotara* jokatu, igel *batean* bihurtu, eza gutzen dut neska bat piano-jolea *dela...* eta antzekoak.

Idazle izatearen beste ezaugarrietako bat bere buruarentzat idaztea da. Eta horrekin ez dugu inolaz ere lotsatu behar, ohar-tu eta onartu baizik. Aitor dezagun afizioa ezezik bizioa ere

badela eskribitzea; ez dugula idazten zerbait irakasteko, zerbait ikasteko baizik. Bizitza ulertzeko eta mundua ezagutzeko beste tresna edo beste modu bat baino ez da izkiriartzea. Bai, gure burua da lehenengo destinatarioa eta bezeroa, eta hala izan behar du. Baliteke norberarentzat bakarrik jardun arren gaizki idaztea, besterentzat bakarrik idazten ari denak, ordea, ez du inoiz ondo idatziko. Zeuretzat asko eta ondo egiten baduzu, berriz, besteentzat ere iritsiko da zerbait.



Eta nik diotsuet euskaraz ikasi ere nor bere probetxu eta onerako egin behar duela. Jendea hobeto atenditzearen bakarrik euskaraz ikasi nahi duen funtzionariak baliteke inoiz tajuz ez ikastea, baina bere burua aberasteko eta gizartean hobeto sentitzeko diharduenak askoz ere probabilitate gehiago dauka aurrera

egiteko, eta, bidenabar, besteak ere hobeto atendituko ditu. Nik ez dut ententitzen, konparazio baterako, Idiazabal bezalako herri batean 20 urte eraman eta euskaraz ez jakitea. Besterik ez, baizik pena izugarria ematen didate, edozein dendatar joan eta % 80a ulertu gabe itzuli behar izaten baitute etxera.

Ezin soportatu dut, ordea, sinbolismo hutsean oinarritzen den euskaltasuna eta horrekin konformatzen den jendea. Ezin jasan dut Euskal Herriko jokalaria baizik hartu ez eta horrekin aurpegia zuritu nahi duen futbol taldea, edota orain arte Juan Antonio izan eta hemendik aurrera Jon Andoni deituz gero, dena eginda dagoela uste duena. Horrelako autoengainu eta espejismorik ez dugu onartu behar. Hori kanpora begira egina dago, eta gogoratu geure barrenera begira burutu behar ditugula obra onak lehen nola esan dudan.

Gauza bera esango nuke gazte hark epaitegian izan zuen jokabidearen gainean: epaile erdaldunari, euskaraz deklaratu nahi zuela eta, lata eman eta eman isildu ez eta epaile euskalduna lortu eta ekarri ziotenean, honen

aurrean, erderaz egin deklarazioa!

Berrito diotsuet, euskara ikas eta erreinbindika dezagun geure barrengo behar eta premiei erantzuteko eta ez fatxada zuritzeko.

Neuretzat idatzi dut!

**Rufino Iraola**  
Idazlea

## Euskara Elkarteen Topagunea

Horrela du izena Euskal Herriko 29 taldek sortutako elkarte berriak. Bere helburua euskararentzat baliabide ekonomiko gehiago lortzea da, eta lehenagoko baliabideei etekin hobeak ateratzea; horretaz gain, baliagarria izango da esperientziak elkarri trukatzeko eta baita zenbait ekintza eta jarduera guztion artean bideratzeko ere. Elkarreak Durangoko Berbaron izango du egoitza, eta aurtengo egitasmoen artean ondorengoak azpimarra daitezke: euskara elkarteei buruzko jardunaldiak antolatzea, kultur zirkuitu bat sortzea, soziolinguistikari buruzko ikastaro-moduluak prestatzea etab.



### Mundua on line

#### Gerra!

Ziberespazioko lehen gerratea hasi besterik ez da egin. Borrokariak ez dira oraingoan soldaduak, baizik eta bi software-konpainia: Netscape eta Microsoft. Eta konkistatu beharrekoa ez dira lurrak edo itsasoak. Jokoan dagoena Internet-en zehar mugitzeko behar diren nabigatzaileen merkatua da, eta irabazleak ikaragarritzko dirutza jasoko du. Netscape aspaldi konturatu zen horretaz, eta 1994ko bukaeran lehen nabigatzailea plazaratu zuen. Doan izanik, arrakasta handia izan zuen, eta gaur egun 40 milioi pertsonak erabiltzen dute.

Bestalde, Microsoft jaun eta jabe izan da PCen munduan. Azken urteotan softwarea eskaini du pertsonak eta makinak elkarri lotzeko: hasiera batean DOS izenekoa eta ondoren Windows famatua. Baina Internet-ek bere inperioa suntsi lezake, jendearen eta konputagailuen arteko komunikazioa aldarazi dezakeelako. Horri aurre egin nahian, iaz Internet-en aldeko apostua egin eta bere nabigatzailea sortu zuen: Explorer izenekoa.

Netscape-k dioenez, Microsoft-ek ez du garbi jokutzen, informatika arloko beste enprekin akordioak egin dituelako beraien produktuetan Explorer programa sartzeko. Kontuak kontu, auzitara jo dute, eta pasa den abuztuan, bi konpainia hauen arteko gatazka juridikoaren erdian alegia, bi produktuen azken bertsioak kaleratu dira: Netscape Navigator 3.0 eta Microsoft-en Internet Explorer 3.0.

Zein da onena? Zaila da oso esatea. Aditu askok Navigator hobea dela diote (Navigator plataforma askotan erabil daiteke; Explorer, ordea, Windows-en bakarrik). Baina Microsoft-ek Windows-paketearekin batera oparitzen du berea, eta horrek ilundu egiten du, nonbait, Netscape-ren etorkizuna, Windows baita sistema eragilerik erabiliene mundu osoan.

Beraz, adi egon; datozen hilabeteotan jakingo dugu zein den garailea.

Luis Elizondo

## Nafarroako sindikatuek euskararen erabilera bultzatuko dute

Nafarroako sindikatu nagusienek kanpaina bat egingo dute, dendetan, zerbitzu enpresetan eta administrazioan euskararen erabilera bultzatzeko. Kanpaina horren barruan milaka ikur eta pegatina banatuko dituzte euskaraz lemarekin, bezeroek langile euskaldunak zein diren jakiteko. Kanpainaren bitartez antolatzaileek bidea erraztu nahi dute, herritarrek toki publikoetan lehen hitza euskaraz egin dezaten.

## Epaitegietako inprimakiak euskaraz

EAEko epaitegietako inprimakiak euskaraz izango dira 1997an. HAEko Itzulpen Zerbitzu Ofizialak prestatutako agiri eta inprimaki horiek EAEko epaitegietako sare informatikoan sartuko dira, erabiltzaileak zuzenean balia daitezten horietaz. Inprimakiak elebakarrak izango dira, hau da, euskara hutsean edo gazteleraz, eta baliagarriak izan daitezke euskarari zuzenbidearen esparruan tokia egiteko.

## Jaurlaritzak 1997ko lan-egutegia onartu du

Eusko Jaurlaritzak erabaki duenez, 1997an 12 jaiegun egongo dira EAEn igandeez gain. Hala ere, lurralde bakoitzeko lan ordezkaritzek beste bi jaiegun ere gehitu ahal izango dute. Hona hemen egutegia:

Urtarrilak 1:	Urte Berri eguna.
Urtarrilak 6:	Errege eguna.
Martxoak 27:	Ostegun Santua.
Martxoak 28:	Ostiral Santua.
Martxoak 31:	Bazko-Astelehena.
Maiatzak 1:	Langileen eguna.
Uztailak 25:	Done Jakue Apostolua.
Abuztuak 15:	Andra Mariaren jasokundeia.
Azaroak 1:	Domu Santu eguna.
Abenduak 6:	Espainiako Konstituzioaren eguna.
Abenduak 8:	Sortzez Garbiaren eguna.
Abenduak 25:	Eguberri eguna.

## Heldu erdaldunak euskararen alde

Siadecok aurkeztu berri duen azterketa soziologikoaren arabera, 20-39 urte bitarteko heldu erdaldun gehienek euskararen aldeko jarrera dute: %1 euskararen aurka dago; euskararen oso aldekoak %32 dira, eta aldekoak %44. Ikerketa hainbat euskaltegi bultzatu dute, eta EKBk koordinatu du. Guztira 2.849 elkarrizketa egin dira Euskal Herri osoan, eta emaitzen artean aipatzeko modukoa da motibazio afektibo eta ideologikoak direla nagusi euskaltegietan matrikulatzerakoan.



# UDAKO TOPAKETA



"Nazionalista, ez zakiat naizen; britainiarra ez naizela ziertogo zakiat, ordea."

Halaxe erantzun zidan, oraintsu pare bat aste, Paddyk, itsas ertzeko ur jolastietan oin hutsik egurasten ginelarik. Egia osoa aitortze aldera, ni neu nintzen, harrezkero, damutuena neure galdera errituzkoarekin, ez baitago gogo-ahuleziaren adierazgarri nabarmenagorik norbera nazkatzen duten galdera errituzkoak inori egitea baino.

Arratsalde erortzen hasiaren biguintasuna, uztaile hasiera azarotuen euriaren laburrarenganako fede inozoa, afari hurbilaren itxaropen garun beratzaila. Auskalo zein izan zen neure galdera egin behararen ziorik gertukoena (ezkutukoena eza-gutzeko, aski nuke Herr Sigmund-i galdetzea); nolana ere, hortxe zegoen, aire iodatuen dilin-dalan, Paddyren erantzunaren oihartzuna baino tematiago: "Eta hik, nola kokatzen duk heure burua Irlandako gatazka horretan?"

Ez daukat garbi ziurtatzerik, baina geunden tokitik oso urrutira iritsiko ziren, seguru asko, neure baitako deabru adarjolearen barre-argaren hotsak: "Eta nola erantzungo huke hik, memelo horrek? Hasita egongo hintzen, honezkero, Zeelanda Berriko kokrodiloen maitasun-erritoez hitzaldi ganoratsu batez harriak aspertzen, gaia zentratze aldera, beti ere..."

Paddy irlandarra da, ordea, eta gurean egonaldi luzeak maiz egin izan aren, ez dio arima kutsatu deserantzunerako euskal grinak, eta, adiskideari zor zaion errespetu etsian -edota, akaso, nire lotsagorritzearen ondorio begibistakoari abilezia handiz ez ikusiarena eginik-, plaust bota zidan bere egoera ideologikoaren berri zehatza eman zidan erantzun hura. "Nazionalista, ez zakiat naizen; britainiarra ez naizela ziertogo zakiat, ordea."

Gauza jakina da: hanka sartu izanaren ustea eta damua arrisku-utsuagoa da ustezko hanka sartzea bera baino, hark orkatilatik belaueraino hondoraziko baitizu zangoa, egoera konpontzeko gogo zintzoaz. Beraz, egoera konpontzera deliberatu nintzen, irakurleak berehala onetsiko duen trebetasunaz: "Bueno, Paddy, ez harritu nire galderarengatik. Zera da, hi, garai batean, jarrera neutralista batean hengoan... Neutralista, edo..., nola esango niake?, Ipar Irlandako arazoa nazioarteko klase borrokaren adierazpide berezi bat baizik ez zela esaten huen... Ikur baten balioa zutela, alegia, atxekimendu nazionallek, aitzakiak edo zirela..."

Saiatu al zarete inoiz dublindar baten zurbiltasunean zeuen hitzen eragina antzematen? Eta kazetari baten begietan pentsatzen ari denaren aztarnik bilatzen? Estrainekoz uztartu nituen nik bi ezintasun horiek, Paddyren aurpegiari so eginik.

Ezin itxaron nezakeena gertatu zen, alabaina. Nire lagunaren hitzek, lehenxeagoko tonu bare berean, naturaltasunez bete zuten egoera:

-Ezkerretik aldendu ote naizen galdetu nahi didak, eta hori bera da azken urteotan hausnarretik atera ezinik naukana. Bidaia luze baten tankera hartzen zioat nik ideologiaren bilakabideari: hasiera batean, ahalik eta arinen ibili nahi duk, zamarik gabe, eta hi heu haiz bidean bete beharreko poltsa.

Abiatu haiz, eta hori duk garrantzitsuena, ondo baitakik perfekzioarekiko idilio unibertsalak ibilian soilik bereganatzen duela nolabaiteko zentzurik. Ezinbestez duk ezkertiarra bidaiari abiatu berria, balioen arteko mugak era garbi batean ulertu behar dituelako, ñabardura handirik gabe. Bestela, nondik atera derri-gorrezkoa duen kemena?

Nekea zerien Paddyren azken urratsei, eta orduan aitzakiaz baliatu nintzen ha-

ren gogoetaren estropadan pausa laburra zirudiena erabateko zia boga bilakatzeko.

Ez nuen Paddy behartu nahi izan iraganminera baizik ez daraman bidea hitzez adieraztera.

Afaria eta afalondoa adiskidetasunaren lege gozoen arabera burutu genituen, konfiantzazko naturaltasunaren aintziran igeriketa lasaian.

Biharamunean, Paddyri agur esatean, distira berezi bat somatu nion aurpegian: haiek ez ziren kazetariaren begi opakoak. Aise konprenitu nuen bezperako gogoeta nolabait itxi beharra zuela, ibilia astundu ez ziezaioren:

-Basamortu izoztua duk, ordea, idilio unibertsala, eta, halako batean, kontraesan inperfektoenen ilinti etxetiarraren oroimenak heureen artera bueltarazten hau. Ez dituk uste huen bezalakoak, eta hi ez haiz bidaian abiatu zuan hura, baina epelagoa duk bizitza hor, eta bertan geratzea erabakitzen duk. Kontserbadorea esan ohi zaiok jokabide horri, eta nazionalistekin identifikatu ohi duk. Arazo bakarra zagok: ez diat ezagutzen alderantzizko bidaiarik egin duen inor.

**Jorge Gimenez**  
Idazlea

# Jose Maria Setien, Donostiako gotzaina:

## “Elizako arduradunok gertuagotik jarraitu beharko genituzkeen gaur egun bertoko gizon-emakumeek dituzten arazoak”

Jose Maria Setien Alberro Hernanin jaio zen 1928an. Hamasei urte zituela, Gasteizko Apaizgaitegira joan zen eliz ikasketak egitera. Ondoren, Erromako Unibertsitate Pontifizio Gregorianora joan, eta bertan Teologian lizentziatu eta Zuzenbide Kanonikoan doktoratu zen. 1960-1972 bitartean, Gasteizko Teologia fakultateko dekanoa izan zen; eta 1979an Donostiako gotzain izendatu zuten. Jose Maria Setien liburu (*Al servicio de la paz en la justicia, La paz es posible, Conflicto cultural y comunidad cristiana...*) eta artikulu askoren egilea da.

**Gizarte modernoak balore batzuk baztertzen ditu eta beste balore batzuk dakartza. Zein balore azpimarratuko zenuke gaur egun?**

Lehenengo eta behin argi eta garbi eduki behar dugu balore hitzari zer nolako esanahia ematen diogun, bestela hitzak bere zentzua gal baitezake. Nire ustez, balorea ez da gizarteak gehien estimatzen duena. Horrela balitz, gerta lekiguke balore esatea diruari, plazerrari, botereari eta izen hori merezi ez duten beste errealitate antzeko batzuei. Balore hitzak, berriz, gizakia gizaki bihurtzen duen horretaz hitz egiten digu eta, horregatik, orden etikoari dago lotuta. Ikuspegi horretatik, beraz, uste dut pertsonaren balorea bere alderdi pribatuan onartzea eta zaintzea oso balore positibo dela, baldin eta erantzukizun sozialari eta elkartasun baloreei ere behar besteko arreta eskaintzen bazaie. Zoritxarrez, badirudi azken bioi gaur egun ez zaiela horrenbesteko garrantzirik ematen.

**Kontsumoaren gizartean bizi gara. Kontsumismoak, indibidualismoak eta abarrek bere txokoa aurkitu dute gurean. Nola helarazi jendeari horren aurkako mezua?** Galdera honek zer ikusi handia du oraindik orain esandakoa erekin. Norberaren nortasuna baieztatzeak inorena ere baieztatzen eraman beharko luke automatikoki. Tamalez, hau ez da egiten gure gizartean. Pribatuaren afirmazioak berekoikeria konpartitu batera darama lasai aski. Beraz, zera errepikatu behar dugu behin eta berriro: *zu-a* baliagarria ez baldin bada, ez dago inongo ziorik *ni*-aren baliagarritasuna azpimarratzeko.

### Elizaren kezka eta ardurak

**Gaur egun kristau asko errazkerian eta erosokerian bizi omen dira. Nolabait esateko, tren bateko gidariak izan baino nahiago dute bidaia bagoi batean egitea.** Hori erantzukizunei eta konplikazioei ihes egiteko nahiaren

ondorio zuzena izan daiteke, nik uste. Ezbairik gabe, askoz errazagoa da “anonimatu” seguru batean bizitzea; baina bizimodu horren zergatia jakingo badugu, geure gizarteari begiratu behar diogu ezinbestez. Ene iritziz, gaur egun gizarte “egituratuta” dago oso, eta horrek nahiko toki uzten die norberaren ekimen eta sorkuntzari.

**Nola bizi behar du gaur egun kristautasuna fededunak?**

Orain arte esan dudanarekin bat eginez. Nork bere fedeari eutsi behar dio, eta, ondorioz, bizitzaren alderdi guztietara eraman behar du fedea.

**Nola ikusten duzu Eliza gaurko gizarte modernoan eta, hain zuzen ere, Euskal Herrian? Zer nolako harremana dago, zure ustez, euskal gizartearen eta Elizaren artean?**

Gizarte libre eta pluralista batean ez dago Elizaren eta gizartearen arteko harreman jakin bati buruz hitz egiterik. Izan ere, gizon-emakumeek eta gizarte-taldeek Elizarekin dituzten harreman edo hartu-emanak era askotakoak dira. Horrek oso harreman konplexua sortzen du gizartearekiko, noski. Eta hau guztia gizarte moderno baten ondorio zuzena da. Gure gizarteak ez du onartzen inolako erakunderen kontrol uniformatzailearik. Ezta Elizarena ere.

**Uste al duzu Elizak gehiago hurbildu behar duela gizon-emakumeengana?**

Eliza, besteak beste, bere burua kristautzat jotzen duten gizon-emakumeen multzoa da. Nolabait esateko, Eliza gizarte batean bizi diren gizon-emakume arrunten multzoa ere bada. Erantzun egokia emateko, nik uste, beste modu batean egin beharko genukeela galdera, hots, ea Elizako arduradunok gertuagotik jarraitu beharko genituzkeen gaur egun bertoko gizon-emaku-

Bakea lortzeko,  
aldeinezko jarrera  
dogmatikoak alde  
batera utzi eta  
negoiazioa ekar  
lezakeen  
elkarrizketari  
heldu behar diogu



meek dituzten arazoak. Galdera horrela ulertuz gero, erantzuna baiezkoa da. Hurbilketa hori fede kristauaren beraren eskakizuna da. Hitz gutxitan esateko, Elizak hobeto jakin beharra dauka zer gertatzen den bere inguruan, hobeto ezagutu gizartea aldarazten duten kausak. Gizartea etengabeko erronka eta deia da Elizako gizon-emakume ororentzat.

#### **Egin behar al luke ahalegin berezirik gazte jendearekin, hots, erakargarriago bihurtu?**

Gazteekin hitz egitea, mintzatzea, ez da erraza inorentzat, ez Elizarentzat ezta haiekin benetako elkarriketa lortu nahi duen edozein taldearentzat ere. Ez da nahikoa gazteak erakartzea eraginkor izan daitezkeen argudioei helduz. Ez da gauza bera gazteak "konkistatzea" eta "Ebanjeliora ekartzea". Elizak azken eginkizun hau dauka eta, noski, zeregin horretan dabil. Dena den, esan dudanez, ez da batere lan erraza. Bestalde, bestelakorik egin nahiko balu, egun gaingiduta dauden jardueretara itzuliko litzateke.

#### **Non jokatu beharko luke aurrerakoia Elizak?**

Ebanjelioak pertsona osoa izateari buruz duen ikuspuntutik abiatuta, kontuan hartu beharko genituzke gaur egungo kulturak gizon-emakumei dakartzkien alde positiboak eta alde negatiboak. Nire ustez, Elizak arreta bereziagoa eskaini beharko lieke inorrekiko elkartasunak duen esanahiari, eta, Jainkoari bizkar emanda biziz, pertsona osoa izan nahiak dakarren etsipena adierazteari.

#### **Zein dira egun Euskal Herriko Elizak dituen kezkak?**

Geure gizarteak, euskal gizarteak, dituen arazoak datozkit burura. Horrela izango ez balitz, Eliza, gizon-emakumeen zerbitzuan egon beharrean, beraiengandik urrun legoke. Langabezia, indarkeria, HIESa, gizarte-konpromezurik gabeko indibidualismoa... Horiek guztiak biziki kezkatzen dute Eliza. Horrek ez du esan nahi inondik ere Elizak oso bestelako kezkak ere ez dituenik. Bat bakarra aipatzearen, bokazio falta aipatuko dut. Baina, arazook ikusi, Elizak Ebanjeliotik gizarteari eskaini behar dion zerbitzuaren ikuspuntutik ikusi behar ditugu.

#### **Nora doa Eliza eta norantz ibili behar du? Nolako izan behar du iristear dagoen XXI. mendeko Elizak?**

Beldur diot aurrerantzean Eliza, gizon-emakumeen arazoz baino gehiago, bere buruaz kezkatzeari. Hori bere misiotik desbideratuko lukeen oker ikaragarria litzateke.

#### **Bakearen aldeko konpromezu sendoa**

**Euskal Herria gatazka mingarrian murgildurik bizi da. Batzuen ustez Euskal Herriko Elizak oso eginkizun garrantzitsua du bake prozesuan, eta beste batzuen ustez, berriz, alde batera geratu behar du. Zein da eta zein izan behar du, zure ustez, Elizaren betebeharrak gatazka honetan?**

Ez dut uste inork pentsatzen duenik Elizak ez duela betebeharrak Euskal Herriaren gatazken irtenbidean. Eta hori horrela balitz, ez genuke halako iritzirik aintzakotzat hartu beharko. Are gehiago, batzuen iritziz Elizak ez du bete beharko lukeen eginkizuna betetzen. Baina hori oso bestelako kontua da, noski.

#### **Ba al dago bakea lortzerik? Zein da bidea?**

Adventu hasieran Euskal Herria baketzeari buruz kaleratutako idazkian azaldu nuen zein den nire ustetan bakea lortzeko biderik egokiena. Lehenik eta behin benetan desiratu behar dugu bakea. Ez da gatazka hau iraultza baten elementu dinamizatzaile bihurtu behar. Aldaezinezko jarrera dogmatikoak alde batera utzi eta negoziazioa ekar lezakeen elkarriketari heldu behar diogu.

**Beldur diot  
aurrerantzean  
Eliza, gizon-  
-emakumeen  
arazoz baino  
gehiago, bere  
buruaz  
kezkatzeari**

**Komunikabideek, zuri buruz ari direlarik, politikari ematen diote garrantzirik gehiena; gainera, zure hitzak, behin baino gehiagotan, manipulazioaren menpe egon dira. Zein da, zure ustez, Euskal Herriaren eta Espainian gizarteak zuri buruz duen irudia?**

Ikuspuntu adina iritzi daude, nik uste. Nik ez diot inori asmo manipulatzailerik egotzi nahi. Niri buruz egin daitezkeen balorazioen desberdintasunaren arrazoiak ugariak dira. Batzuek erlijioarekin dute zerikusirik, hots, mezu kristaua eta beronek errealitate temporalarekin duen lotura ulertzeko modua. Beste batzuk, berriz, politikoak dira, arlo honetan nork berak dituen ideien arabera. Nire asmo sendo bakarra mezu

kristaua ez urratzea, ez apurtzea, besterik ez da. Lortu ala ez oso bestelakoa da, jakina.

**Lutxo Egia  
Kazetaria**

# Eskubideak ez dira administratzen

Euskal Herriko Unibertsitateak 1985ean bere Estatutuak idatzi zituenetik, euskarak legebidea eginik dauka Euskal Komunitate Autonomoko unibertsitate publikoan, baina eginbidea indarrean jarri ezinik. Estatutuak VIII. atala ona da. Oso ona. Ikasle, irakasle eta langile unibertsitari guztien hizkuntz-eskubideak bere horretan onartzen ditu, bai irakaskuntza hartzeko unean, bai ematera-koan, zein hitzeko harremanak arautzean ere. Akats bakarra (eta halakoa!) paper erre delako dugu, hau da, inoiz, inola, inon ez dela VIII. atala bete-betean gauzatu, idatzita dagoen eran:

- 241.1. "Euskal Herriko Unibertsitatearen hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira" (orden honetan).
- 241.2. "Unibertsitateak, bere kompetentzien eta betekizunen barrutian, mintzaira bien erabilera normala eta ofiziala bermatuko du".
- 242.3. "Inork ez du hizkuntzagatik bereizkeriarik pairatuko".
- 248.1. "Euskara normalki erabiltzeko eskubidea bermatzeko, Unibertsitateak, jendea bi hizkuntza ofizialetan tratatua izan dadin, une bakoitzean, beharrezko neurriak hartuko ditu".

Eta honela beste 13 artikulua, bi kapitulutan banatuta. Legearen letra egokia da, oso, baina izpiritua ez da gorpuztu errektorego-rik pasatu izan diren agintari-talde ezberdinengan.

## Arrazoi ekonomiko eta politikoak

Zein da arazoa? Zergatik ez da bete 1990ean sortu zen bost urte-tarako plangintza? Zerk oztopatzen edo atzeratzen du hauteskunde kanpaina guztietan hautagai guztiek aho batez onarturiko plangintza?

Erantzuna, batez ere, bi arlotan topatu behar da, arlo ekonomikoan eta politikoan. Unibertsitate elebiduna oso garestia da. Irakasle-ikasle ratioa gutxitu behar da ikasleak oro irakaskuntza euskaraz hartzeko eskubidea eduki dezan, eta nahikoa da 10 ikasle eskatzea, talde berria sor dadin (teorian behinik behin).

Bestalde, erdal adarretan "hazkunde hutsa" ezarri nahi den bitartean, euskal adarrak etengabe hazten ari dira, titulazio guztiak osoki euskaratuak izan arte (teorian, berriz ere). Unibertsitatearen garestitasunaz kontzientzia argia ez dutelako susmoa hartzen diegu politikariei, Komunitateko zerbitzu publiko handiena (ETB eta beste zerbitzuen gainetik, zifratu) diru gutxirekin eta beharrezko erantzun barik martxan jarri nahi baitute.

Gabezien bigarren arrazoi politikoa da, eta zintzoa izateko, nire ustez arrazoi bakarra, ekonomikoa honen menpe baitago. Behar den diru haina ez dagoenez, lehentasunak hartu behar dira, eta euskara beti izaten da bigarren betetzen den zuloa, betetzekotan, jakina.



kasten ari direlako, besteren ezean. Panorama, benetan, penagarría da, edonondik begirata ere.

## Gerora begira

Funts-funtsean arazoa politikoa dela nioen lehen, eta ondo nioen, ikuspuntu euskaltzalea izanik ez zirelako euskal irakasleak murriztuko, erdaldunak baizik, baina hori asko eskatzea da berez espainola jaio zen unibertsitatearentzat, eta oraindik ere espainola izateko borondate trinkoa duen erakundearentzat. EHU bizi/lan egiten dugun irakasle euskaltzaleok bi bide baino ez ditugu, eta seguruen biak jorratu beharrezkoak: kontrakoa zai- guran behin eta berriz ekitea, euskara tantaka sar dadin, eta guztiz inoiz euskalduneko ez dugula argiro jakinik, ala edo eta, EHUz ahaztu eta unibertsitate berria sortu, errotik, jaiotzetik Euskal Unibertsitatea izango zena eraikiz.

**EHUk, oraindik ere,  
espainola izateko  
borondate trinkoa du**

Planteamendu hau ez da berria, UEUren kabitik abiatuta aspaldidanik marraztu izan den ideia baita, baina inoiz ez da indarrez kaleratu. Ez dago indar nahikorik, oraindik. Aurrez aurre dugun erakundea indartsua da, eta oso handia. 70.000 ikasletatik 5.000 baino ez dira euskaldunak (oraingoz, datu hauek urte urte aldatzen baitoaz). 500 irak-

kasle euskaldun dugu, 3.000 irakasletatik, eta EHUren aurrekontu osoa 30.000 milioi pezetakoa, ETBren aurrekontuaren gainetik. Hutse-hutsetik, eta herri ekimenaz soilik zaila da, oso, unibertsitate bat abian jartzea.

Edonola ere, jarrera euskaltzalea izan, zein izan ez, Unibertsitate barneko legedia oso argia da eta bete beharrekoa, bai eta Komunitate Autonomoan indarrean dagoen Euskararen Normal-kuntzarako Legedia ere. Legedi horien arabera, Komunitateko edozein hiritarrek euskaraz mintzatzeko, ikasteko eta irakasteko eskubidea du, eta eskubideak ez dira eztabaidatzen, ezta administratzen ere (gaur bi eta bihar bost). Eskubideak gureak dira, guztionak, eta esijitzen ditugu, baita Euskal Herriko Unibertsitatean ere. Hobe esanik, bertan, bereziki.

**Laura Mintegi**  
Idazlea

# Hizkuntz eskubideak aztergai Bartzelonan

Aurtengo ekainaren 6tik 9ra bitartean mundu zabaleko gobernuz kanpoko 61 erakunde (GKE), 30 PEN Club eta hizkuntz zuzenbideko 40 aditu bildu ziren Bartzelonan Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Biltzarrean. Biltzarrak erantzuna eman nahi zion CIEMEN (Centre Internacional Escarré per a les Minories Ètniques i les Nacions) eta PEN Clubeko Itzulpen eta Hizkuntz Eskubideen Batzordearen ekimenari.

Konferentziaren helburu nagusia honako hau izan zen: GKEek Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Adierazpena onartzea, eta agiri hori UNESCOra bidaltzea, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Adierazpenari gehitu diezaion

Dena den, asmoa ez da atzo goizekoa. Bartzelonan egindako Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Biltzarra, eta bertan onartutako Adierazpena urte batzuk lehenago hasi ziren mamitzen. Xabier Iriondok, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Zuzenbide Fakultateko irakasle eta adituen taldeko kideak, azaldu digunez, "hasiera 1993an izan zen. Garai hartan PEN Clubek hizkuntz eskubideen nazioarteko konferentzia bat antolatzeke erabaki sendoa hartu zuten. Poliki-poliki haruntzago joan ziren, hots, konferentzia bat antolatzea ezezik, hizkuntz eskubideen inguruko hitzarmenen bat ere lortu behar zutela erabaki zuten. Orduan, CIEMENekin batera, hizkuntz eskubideen nazioarteko adierazpen bat idazten ahalegindu ziren".

## Hizkuntzen aldeko adierazpen aurrerakoia

1994an hizkuntz eskubideen alorrean diharduten batzuek eta zenbait adituk batzorde bat eratu zuten. Iriondoren esanetan, "azpimarratu beharra dago hasiera-hasieratik erabaki zela batzordeak plurala behar zuela izan; hau da, adituek edo juristek bakarrik osatutako taldea izan beharrean, hizkuntz gutxiagotuen dauden guneetako lagunak ere han izatea. Hasiera hartan Iñaki Agirreazkuenaga aritu zen euskaldunen ordezkari eta, geroago, neuk hartu nuen haren tokia".

Batzordearen egitekoa Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Adierazpenaren lehen zirriborroa idaztea izan zen. Lehen zirriborro edo testua eginda, adituek iradokizun eta emendakinak bidali zituzten. Iriondok berak aitortu duenez: "guk hainbat akats eta hutsune ikusten genituen Euskal Herriaren kasuan". Horiak horrela, 1996ko ekainean, behin betiko testua onartu aurretik, beste 13 testu eztabaidatu ziren.

Hizkuntz Eskubideen Adierazpenak ez ditu hizkuntza gutxiak bakarrik kontuan hartzen. Bertan edozein hizkuntzak du tokia. Hain zuzen ere, Adierazpenak hizkuntza guztien berdintasuna aldarrikatzen du, inolako bereizketarik egin gabe. Hala eta guztiz ere, Xabier Iriondok azaldu digunez, "Adierazpenean nabari-nabaria da katalanen eskuhartzea, izan ere, 3. artikuluan hizkuntz elkarte edo komunitatearen eta hizkuntz taldearen

arteko bereizketa egiten du. Lehenengoa betidanikoa litzateke, eta eskubide batzuk ditu. Hizkuntz taldea, berriz, lurralde berean kokaturik dagoen historikotasun gutxiagoko talde bat litzateke. Adierazpenak tratu desberdina ematen die bata eta besteari. Esate baterako, Katalunian katalanek hizkuntz komunitatea osatzen dute. EAEan, ordea, euskaldunok %25 inguru gara. Geu hizkuntz komunitate eta erdaldunak hizkuntz taldekat hartu eta, adierazpen horren bitartez, tratu desberdina bermatzea ez dakit zein puntutaraino litzatekeen eraginkorra guretzat".

Adierazpenak, guztira, 52 artikulua ditu. Lehenengo 14 artikulua orokorrak dira, eta hizkuntz komunitateek, taldeek zein norbanakoek dituzten eskubideak zehazten dituzte. Gainontzeko artikuluek, berriz, administrazio publikoa eta organo ofizialak, hezkuntza, onomastika, teknologia berriak eta hedabideak, kultura eta arlo sozioekonomikoa dituzte aztergai. Azkenik, Adierazpenak atal gehigarri batzuk ere baditu. Bertan esaten da botere publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituztela Adierazpenean jasotako eskubideak gauzatu ahal izan daitezten. Bestetik, Adierazpenak proposamen bi ere egiten ditu: bata, NBEko Hizkuntzen Kontseilua sortzea; eta, bestea, Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Batzordea osatzea. Azken hau GKEetako ordezkariak eta hizkuntz zuzenbidearen arloko erakundeek osatuko lukete, eta bere izaera ez litzateke ofiziala izango; bai, ordea, aholku emailea.

## Irtenbide magikorik ez

Oraindik goizegi da Bartzelonan onartutako Adierazpenarekin zer gertatuko den esateko; hala ere, NBEk Hizkuntz Eskubideen Adierazpena bere egin dezan, Bartzelonan bildutako adituek bi organo sortu zituzten: alde batetik, Kontseilu Zientifikoa, UNESCOk sortzen dituen lantaldeen zerbitzura; eta, bestetik, Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Adierazpenaren Jarraipen Batzordea. Beronen egitekoa GKEen, PEN Cluben eta adituen arteko zubiak zabaltzea da. Batzordea kontinente guztietako beheratzi erakundeak osatzen dute.

Adierazpenak  
hizkuntza guztien  
berdintasuna  
aldarrikatzen  
du, inolako  
bereizketarik  
egin gabe

Batzordea UNESCOko lehendakariarekin, alegia, Federico Mayor Zaragoza jaunarekin, bildu zen uztailaren hasieran, eta dokumentua eman zion aztertzeko. Mayor Zaragozak zin egin zuen UNESCOk dokumentua jaso eta aztertuko zuela. Horren inguruan ondorengo hau esaten digu Iriondok: "Haiek ikusiko dute zer-nolako aukerak dauden Nazio Batuek testua erresoluzio gisa onartzeko; dena dela, esan beharra dago aukera horiek oso gutxi direla. Adierazpen hau 1992ko Hizkuntza Erregional edo Gutxiagotuentzako Karta baino askozaz ere handizaleagoa eta zabalagoa da. Orduan, nola pentsa dezakegu aurreko Karta sinatu ez duen estatu batek oraingoan adierazpen unibertsal bati baietz esatea? Nire ustez, Adierazpena Nazio Batuetan aurkezten bada, murrizketak izango ditu ezinbestez. Bestalde, hizkuntza gutxiagotuen alde lan egiten dugunok ez dugu pentsatu behar nazioartetik etorriko zaigula irtenbide magikoa. Geure administrazioek eta geure botere publikoek bermatuko dizkigute guri gure hizkuntz eskubideak, eta, beraz, haiekin lan egin behar dugu".

Euskal Herrian, jakina denez, hainbat errealitate juridiko ditugu euskarari dagokionez. Beraz, Hizkuntz Eskubideen Adieraz-

penak eragin desberdinak sortuko lituzke Nafarroan, EAEn eta Iparraldean. Iriondoren iritziz, "Estatu Frantsesak Adierazpena onartuko balu, hori ezin hobea izango litzateke Iparraldearentzat; baina, lehen adierazi dudanez, lehenik eta behin hantxe dago egin beharreko lana, haien zentralismo linguistikoa gairi dezaten eta euskararen estatusa aitortzen hasi daitezen behingoz. Horretaz gain, ez da ahaztu behar NBek hartzen dituen hainbat eta hainbat erabaki ez direla inoiz betetzen. EAEn, berriz, Adierazpenaren 52 artikulua horietatik 48-edo bermatzen dira. Nire ustez, ondo dago hizkuntzen artean halako anaitasuna eta elkarkidetzaren sortzea, baina elkarkidetzaren horretatik euskaldunok gehiago dugu emateko jasotzeko baino. Gure hizkuntz normalkuntza prozesutik asko eskain dezakegu. Euskarak Adierazpenetik zerbait jasotzen badu, kontzientzia bat sortzea izango da, eta kontzientzia horren bitartez konturatuko gara hizkuntzak zaindu beharreko baliabide ekologikoak direla".

Lutxo Egia  
Kazetaria

## Iñigo Santxo, abokatu eta EKBko kidea: "Akordioaren arabera euskara erabili ahal izango da harreman juridiko pribatuetan"



### Zer deritzozu Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Adierazpenari?

Lehenik eta behin ahaleginak berak adierazten du hizkuntz eskubideen aldeko nolabaiteko kezka dagoela. Munduan lehenengo topaketak egin eta, topaketen ondorioz, lehen akordio bat egin izanak erakusten du benetakoz kezka dagoela gai honen gainean. Hori pozgarria da oso. Dokumentua, nolabait esateko, abiapuntu bat da. Hainbat alderdi oso egoki jasotzen ditu.

### Hobea izan al zitekeen?

Bai, hobetzerik beti egoten da. Hala ere, kontuan hartu behar da honek gero zein bide egin behar duen. Nire iritziz, nahiko ondo egokitzen da errealitatera, eta bideragarria izan daiteke.

### Zein dira Adierazpenaren punturik interesgarrienak?

Adierazpenak atal desberdinak ditu. Lehenengo eta behin Adierazpenaren subjetoak zein diren azaltzen ditu. Alde horretatik, hizkuntz elkarteak eta hizkuntz taldeak

aipatu eta bereiztu egiten ditu. Hizkuntz elkarteak komunitate linguistikoari dagokio, eta hizkuntz taldeak, berriz, talde linguistikoak da, komunitate horren barruan da goena.

Administrazio publikoari dagokionez, akordioak ematen duen babesa, nolabait esatearren, EAEn daukagun babes estandarren antzekoa da. Interesgarria da justizia-administrazioari dagokion aipua. Egun Madrilera jo behar dugunean errekurso bidean, bai Auzitegi Gorenaren aurrean, bai Konstituzio Auzitegiaren aurrean, legeak ez digu euskaraz egiterik onartzen. Akordio honek, ordea, eskubide hori bermatzen du prozedura judizialen bat zabalitzen denean hizkuntza koofizialik dagoen tokietan. Bestalde, notaritzak eta erregistroei dagokienez, gauza bera xedatzen du.

Hirugarrenik, berea ere ematen die harreman pribatuei, izan ere, akordioaren arabera euskara erabili ahal izango da harreman juridiko pribatuetan. Nolabait esateko, akordioak esku ematen du enpresa pribatuen arteko harremanak euskaraz bideratzeko. Hori nahiko aurrerakoia da.

### Onartuko al du NBek?

Hori nahiko bide korapilatsua da. Aukerak egon badaude; baina baita testuaren kontzeptu batzuk aldatzeko edo erreserbak izateko ere, Eurokartarekin gertatu zen moduan. Litekeena da, bai, akordioak orain duen maila jaitsiaraztea. Testua nahiko aurrerakoia da zentzu askotan, eta ez dakigu zein puntutaraino onartuko duten orain dagoen moduan.



# Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Biltzarra

Dagoeneko ezaguna denez, Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Biltzarreko Partehartzaileen Asanbladak, ekainaren 6an, Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Adierazpena onartu zuen aho batez. Eta agiria sinatu, Bartzelonako Unibertsitatearen Parainfora bildutako adituek eta Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) eta PEN Cluben ordezkariak sinatu zuten. Azkenik, agiria UNESCOko zuzendari nagusiaren ordezkariari eman zitzaion.

Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Adierazpena agiri luze eta konplexua da. Eta ezin beste era batera izan, gaia bera konplexua baita oso, eta aditu eta talde askoren iritziak jaso nahi izan baitziren.

Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Adierazpena 1994ko irailean hasitako prozesu luze eta mamitsu baten emaitza da. Biltzarren antolatzaileek hainbat adituri eskatu zioten hura osatzeko. Hain zuzen ere, egindako 12 zirriborroetan herri askotako 50 bat adituk parte hartu zuten.

Alferrikako bidaia garestiak egin gabe, teknologia berriek kontinente guztietako adituen eta taldeen arteko elkarriketa ahalbidetu zuten.

Islatutako testuinguru soziolinguistikoei esker, ekarpen anitzei esker, eta azaldutako planteamendu guztien arteko oreka bilatzeari esker, Adierazpenak ez du bat egiten eskola jakin batekin.

Egileak gogotik saiatu ziren Adierazpenean zehaztutako hizkuntz eskubideak estatus politiko edo administratiboaren menpe gera ez zitezen. Adierazpenak hizkuntz eskubideen berdintasuna aldarrikatzen du, hizkuntz ofizial eta ofizialak ez diren hizkuntzen arteko bereizketarik egin gabe; hizkuntz nazional, eskualdeko eta tokian tokikoaren arteko bereizketarik egin gabe; moderno edo zaharren arteko bereizketarik egin gabe...

Adierazpenean jasotzen denez, hizkuntz eskubideen dimentsio kolektiboa eta indibiduala banaezinak eta elkarren menpeko dira. Horrela, bada, norbanakoen hizkuntz eskubideak bakar-bakarrik gauza daitezke baldin eta komunitate eta talde linguistiko guztien eskubideak aintzat hartzen badira.

Toki berean bizi diren komunitate, talde eta pertsonen hizkuntz eskubideak artikulatzea ezinbestekoa da elkarbizitzarako, jakina; baina oso zaila gertatzen da. Hori dela eta, Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Adierazpenak kontuan hartzen ditu historikoki euren lurraldean kokatuta dauden hizkuntz komunitateen eskubideak.

Hizkuntz eskubide horiek gauzatzeko orduan baliabideak garrantzitsuak direla egia bada ere, baliabide falta argudiatuz ez litzateke bidezkoa izango hizkuntz eskubideak ukatzea. Mundu guztiari aitortutako eskubideek ere (bizitza, hezkuntza, osasuna, lana...) behar dituzte diru kopuru handiak. Adierazpenak elkar-tasun konpromezu bat bultzatu nahi du arlo honetan ere, gabeziei aurre egiteko eta gizon-emakume askoren eskubideak ahalbidetzeko.

Faktore anitzek baldintzatzen dituzte bai hizkuntzen egoera, bai komunitateen, taldeen eta norbanakoen interesak bat etortzea, bai hizkuntz eskubideen eta beste eskubide funtsezko batzuen arteko ezinbesteko harremanak. Eta faktore horiek ezinezko bihurtzen dute kasu guztietan neurri berdinarik ezartzea. Horiek horrela, eta botere publikoen saihestezinezko erantzukizuna azpimarratzearekin batera, Adierazpenak ez die beharrei edota debekuei begiratzen, eskubideei baizik; eta kontsentsu demokratikotik abiatutik, egoera bakoitzari dagokion irtenbidea bilatzen saiatzen da.

Hizkuntz Eskubideen Nazioarteko Adierazpenak prozesu baten amaiera eta beste baten hasiera ekarri ditu. 1996ko ekainaren 6an aldi berri bati ekin zaio, eta aldi berri horrek Nazio Batuetako Nazioarteko Biltzarra eskatzen du. Azken batean, Biltzarren bitartez gure helburua lortzerik izango da, alegia, Adierazpena sendotzea atxekimenduen bidez, ideia eta iradokizun berriak jasotzea, eta guztion ametsa –hizkuntz eskubideen eza-gutzan oinarritutako bake linguistikoa– egi bihurtzeko ahalegi-nak batzea.

**Oriol Ramon i Mimó**  
CIEMENeko lehendakaria

**Norbanakoen hizkuntz eskubideak bakar-bakarrik gauza daitezke baldin eta komunitate eta talde linguistiko guztien eskubideak aintzat hartzen badira**

# Galdegai arrunta eta aposizioak

Ohar bat aurretik: besterik adierazten ez den bitartean, adierazpen esaldi baiezkakoez arituko gara, eta aditza nahiz baieztapena galdegai diren kasuak alde batera utzirik oraingoz. *Ordenamendu neutro* delakoan, berriz, zera suposatuko dugu, galdegaiaren bat badela, baina ez doala kasu horretan enfasis markatua (*neutrizaturik* dagoela, bestela ezanik).

Horrenbestez, edonork daki (jakin dakiela diot; erabili, gero, auskalo nola erabiltzen duen) zein den galdegaiaren arau nagusia (idatzizko kodean, jakina, zeren ahozkoan gauzak ez dira berdin-berdin gertatzen): galdegai den sintagma aditzaren aurrean doa, eta intonazioak etenik gabeko segida bat osatzen du bion (galdegai-sintagmaren eta aditzaren) baturaz. Gauzak horrela, arauaren simplez, hutsak honako arazoietakoren batez baino ez daitezke noski gerta:

- Galdegai berez zer den (arazo teorikoa) edo kasu konkretuan zein den (arazo praktikoa) ez jakitea.
- Beste sintaxi arazo larriren batek gogoz beste hautsaraztea araua (esaldiaren luzera edo konplexutasuna, adibidez).
- Zabarkeria hutsa (asistematikotasun *jatorrez* jokatzeko eskubidea alegatzen duenik ez da falta izaten: ai, oker egindako justifikatzeko lehian gastatzen den indarra zuzen egiteko enplegatuko balitz!)

## Testuak irakurtzeko dira

Zer egin galdegai den sintagmaren ondoren haren aposizio bat badator? Kontuan izan behar dugu idatzizko testuek ere (are itzuliak, hainbati ahaztu bazaio ere) ahozkoak *bezala* irakurtzekoak izan behar dutela, eta tranpa ezezik irakurlearekiko traizioa ere badela, grafikoki baizik irakurgarritasunik ez duten prozeduraz jostea. Funtsean kasu bera denez, aipa dezagun hemen, zeharka bederen, Euskaldunon Egunkariak –noraezean edo burua gehiago nekatu faltaz– sistematikoki darabilen parentesi-sistema: *Araia*ko (*Araba*) *etxe batean*...

Jorratu beharko dugu inoiz sakonago kontu hori, baina oraingoz aski zaigu baldin eta ados bagaude parentesi hori *ezin dela irakurri*. Guruerako atera nahi nuen ondorioa, berriz, berez dator: paperean grafikoki aposizioak galdegaiaren eta aditzaren artean joan daitezke, baina ez dago gero hitzen berezko egoeran (akustikoki, alegia, nahiz akustika hori barnekoa eta isila izan) ematerik. Onenean, intonazioa zalantzan gertatzen da aposizioari dagokion eten markatuaren eta galdegaiari aditzarekiko dagokion jarraitasunaren artean, eta horixe salatzen du noski puntuazio zalantzak (goraxeagoko aipamenarekiko paradoxalki, izatekotan, –parentesiak edo marrak– izan daitezke batzuetan (bere horretan irakurtzeko modukoak badira) irtenbide aproposagoa, komak baino, etena bainoago *aparte* bat seinalatzen baitute):

*Aizkolari asko, herrialde guztietatik etorriak(,) bildu dira Tolosan.*

**Testu egoki,  
irakurgarri bat  
emango badugu,  
burua nekatu  
beharra dago**

Adibide horixe aprobetxa genezake erdararekiko konparazio argigarria egiteko. Gure galdegaiaren baliokide-ordain gutxi gorabeherakoa (ez da sintaktikoki hain markatua, eta intonazioaren baitanago geratzen da, beraz) aditzaren ondortik dator noski erdaraz, eta *horregatik da posible*, aditzaren ondoko posizio enfatikoa kunpliturik (amaierakoa izan ohi da enfasia, hor bezala, sintagma bat baino gehiago jokoan denean), atzetik, aposizioa *eramatea*:

*Se han reunido en Tolosa muchos aizkolaris, venidos de todos los paisés.*

*Ils se sont réunis a Tolosa beaucoup d'aizkolaris, venus de tous les pays.*

Orain aztertzen ari garen puntuari dagokionez, ez dirudi halako esaldi labur-simpletan hain-

besteko arazorik dagoenik araua eta irakurgarritasuna onik eta santu irten daitezke biak ere, nahiz nominatibotik kanpoko kasuetan beste perpaus bat osatzea beste erremediorik ez dagokeen:

*Aizkolari asko bildu dira Tolosan, herrialde guztietatik etorriak. Gizon bat ikusi nuen geltokian, antzinako arropa dotorez jantzia. (Probatu aditzaren aurrean jarririk aposizioa) Aizkolari asko etorria da Tolosara. Bihar dute jokia.*

Azken adibideak ilustratzen duenez, aposizioa beste perpaus batean eman beharrak ere baditu bere katramilak. Batetik, askotan oso eskas gertatzen da berez, aski funtsik gabea, bai justaposizio eta bai koordinazio mekanikoz emateko, eta bestetik, horrekin loturik, galdegaiaren bat esplizitatu beharra suertatzen da askotan (goiko adibidean, "bihar"). Kontuak kontu, informazio osoa bere gisa berrantolatu beharrean gertatzen da itzultzaile maratza (quod erat demonstrandum), testu egoki, irakurgarri bat emango badu. Burua nekatu beharra dagoela, alegia: zer uste zenuten?

## Erlatibozko perpausa ez da beti irtenbidea

Badaezpada, eta jorratu beharreko beste puntu bat aurreratu, eman dezagun bertatik abisua arazo metatu horien soluziobidea ez dela noski (batek baino gehiagok nahi lukeen arren) aposizioa erlatibozko perpaus bihurtzea, nahiz (hortik tentazioa) sintaxi-arazo formalak horrek *ituraz* konpondu:

*Gizonak ikusi nituen, antzinako arropa dotorez jantziak. Antzinako erropa dotorez jantzitako gizonak ikusi nituen.*

Esaldion arteko aldea ikusten ez duenari, apenas lagun diezaiokekan nik, baina besteentzat, ohartaraz dezadan sintagma determinatuetan (mugatzaila daramatenetan) dela larrien bereizkuntza. Erlatibozko perpausen eta haietatik eratorrien *zehaztailetasunari* dagokio nagusiki auzia, baina hori ere beste batean jorratu beharko dugu luze-zabal.

**Juan Garzia**  
Idazlea



# Udari begira

Bada urtean zehar lan egiteko modu bat: udako oporrei begira egitea; urte osoan nolahala iraun, eta udaraino iritsi. Gero gerokoak.

Eta iritsi da, bada, ditxosozko uda hori. Hementxe dago, aurre-aurrean. Aurten-goari ere eutsi diot, eta orain banoa; banoa inork harrapatuko ez nauen lekura; ez telefono, ez ordenagailu; borda zahar batean biziko naiz uda osoan.

Badira urte batzuk erosi nuela borda zahar hori, alor puska batekin. Hantxe bazkatzen da nire behor zaharra, Rocinante eme ipurtzabala, lotu gabe, libre; ez du ihes egiten.


"Hantxe bizi naiz bakean"; horixe da Elissanbururen kantako etxearekin nireak duen antzekotasun bakarra. Beste gainontzean, ez duzu etxe hori ikusiko goizean egun argitzen denean menditxo baten gainean; mendi arteko zulo batean baitago; ezta lau haitz handiren erdian dagokeen etxe txurtxo txiki pollitik ere, sastrakaz inguraturiko harri beltzezko etxola zikin bat da eta. Iturritxo, zakurraren ipurdian, asunez inguraturiko zoko malkartsu batean; ateko txakur txikiaren ordez, behor zahar bat, bere gisara dabilena. Hala ere, hantxe bizi naiz bakean.

Mutilzaharraren kontsolamendua.

Egia esan, gazte samar hasi nintzen mutilzahartzen. Izan nuen bat edo besterekin maindireak zimurtzeko aukera, baina geroztik ni baino konpainia gozoagoa bilatu zuten haiek, eta ni gero eta zaputzago jartzen hasi nintzen. Eta zaputzetan erosi nuen borda, nire lan beltzean irabazitako sos apurrekin. Eta zaputzetan nago oraindik, eta neure bordan baretzen naiz, zozo eta birigarroen artean, behor zaharraren aldaka baldarrei begira.

Zapuzkeria izan zen idazten hastera bultzatu ninduen ere. Administrazio-lan beltz honi aurre egiteko, zirriborroak egiten ditut urte osoan, eta gero, oporretan, luze eta arnas handiz idazteari ekiten diot. Bost nobela erdieginak dauzkat, eta bete ditut lauhun bat orri ipuin laburrez. Poemarik ez; hori nostalgikotentzat eta deprimituentzat. Ni ez naiz batere deprimitzen, ni zapuztu egiten naiz, eta hortik sortzen zait idazteko indarra. Daukadan ogibidearekin eta idazteko zaletasun asegaitz honekin, Kafka sentitzen naiz, garbi-garbi, f bat gora-behera.

Egia esan, badakit ez naizela inoiz Kafkaren parera iritsiko, naiz zenbait bertute nire alde eduki; ni hura baino askoz ere zaputzagoa jartzen naiz, neure bordan hark baino egokiera hobek ditut idazteko; baina... baina, ni ez naiz judua, Jainkoak aukeratu eta munduak bazterreraturiko herriko idazlea, baizik eta leinu basatien jatorrikoa; baina... baina, nire bulegoan ez dago tinta usainik, nire bulegoan ez dugu erabiltzen bixerarik; dena da ordena-



gailu, dena da azkartasun tekniko, dena da efikazia, dena da plangintza, dena estatistika; ia-ia ez dugu agintaririk, makinaren gurpil geldiezinak agintzen du, automatikoki, etengabe, aginduaren beharrik gabe; dena da zenbaki eta zerrenda, dena grafika eta portzentaia.

Ezin dut Kafkaren asperdura tinta-usaineko sentitu, ezin dut Miranderen begirada iluna errepikatu, hainbeste argiren artean, ezin diot Mirandek bezala nagusi gorpuzdun bati errua bota eta nire begiratu herratsua eskaini.

Horregatik ez naiz inoiz Kafka edo Mirande izango; argi gehiegi dago nire bulegoan haien histasuna nabaritzeko. Hala ere, zaputzaren zaputzez ekingo diet zirriborroei, eta neure borda ilunean papereratuko ditut, estilografika zahar baten zarataren oihartzunean.

Urte asko dira mutilzahar zapuztuarena egiten ari naizela, eta badirudi jokabide horrek urteak aurrera joan ahala burua pittin bat arindu egin didala. Azken aldi honetan gero eta desinhibituago sentitzen naiz; idazteak halako dantza txoro bat sortzen dit buruan. Hasierako gai ilun haiek urteen poderioz egoera barrengarri bihurtzen joan dira. Eta hori ez da dena; burugabekeriak eta gauza ezohikoak idaztetik egitera pasatzen ari naiz.

Atzo bertan, polita egin nuen.

Ba zen gutxienez hogeitaz urte hondartzarik zapaltzen ez nuela. Hozkia ematen dit; zer egingo diot, bada. Atzo, ordea, bordan goizean goizik jaiki nintzelarik, Kontxako hondarraren ukitua sentitzeko gogoia izan nuen bat-batean. Jarri behor gainean, eta hantxe joan nintzen mendiz mendi, ez hala ere trosta bizian. Noizbait ere iritsi nintzen, hamabiak aldera edo. Behorra bizikleten lekuan aparkatu eta hondartzan paseotxo bat egin nuen; gero bainatu, eta buelta etxera.

Abiatu naiz etxerantz airoso-airoso, eta ez dut, bada, topo egin bulegoko zerbitzuburuarekin! Atso petralagorik hori baino!

Ni, ordea, lasai, ttpa-ttpa. Ez nintzen batere lotsatu; zaldi gaitetik agurtu nuen.

Senarrarekin zihoan, eta alabarekin (hogeita bost bat urteko nes-kagazte dotorea). Gorri-gorri jarri zen; ondoeza egingo zitzaioa zirudien; eta ondoeza egin zitzaion, alaba nire atzetik korrika etorri, salto batez behor gainera igo eta nire kontra estu-estu jarri zenean. Neskagaztearen bularrak bi sumendi ziren nire bizkarran.

Dios! Egia balitz azkena idatzi dudan hau. Imaginatu egin dut bidaiatxo. Izan ere, azken aldi honetan ezin sosegaturik bainabil neure borda iluneko bakardadean. Ezin dut burutik kendu zerbitzuburuaren alaba, eta gero eta gogo handiagoa daukat Kontxa aldera agertzeko behor eta guzti...

Mutilzaharraren udaldia.

**Juan Kruz Igerabide**  
Idazlea

# Itzulpen zuzena itzulpen txarra da

## Administrazioan itzulpena nagusi

Euskararen erabilera ez da bultzatu behar bezala orain arte Administrazioan; oraindik ere ez dira bultzatzen ari. Are gutxiago euskararen erabilera idatzia: hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duen funtzionarioa euskaraz idaztera bultzatuko duena oraindik ez da asmatu. Ahozko harremanak aldatzea zailagoa da, pertsona arteko harremanetan eta hizkuntza-ohituraren eremuan sartzen baikara; baina idatzian badirudi nagusiaren erabakia edo agindua modurik behinena edo errazena litzatekeela jatorriz euskaraz idaztera bultzatzeko. Dena den, erabilera idatzia bultzatzeko planik ez dagoenez, inertiak eraginda, jatorriz euskaraz idatzi beharrean, erdaraz idaztea da usuena, ondoren itzultzaileak itzulpena egin dezan. Ez dago neurtuta, baina Administrazioan euskaraz idazten den gehiena itzulitakoa da; euskaraz jatorriz sortutakoa oraindik oso gutxi da eta.

Euskarazko produkzio idatzian itzulpena nagusi denez, itzulpenak nolakoa izan behar duen aztertzea dagokigu Administrazioan euskaratzen —eta, gutxiago, erdaratzen— dihardugunoi, hau da: itxura eta edukiaren arteko orekan, zeri garrantzia eman.

## Itzulbideak edo itzulkerak

Itzulpen-teoriak itzultzeko modu bi ezagutzen ditu: zuzeneko eta zeharkakoa. Itzulpen-modu biak labor bereizteko, zuzeneko itzulbideak forman jartzen du itzulpenaren pisua, eta zeharkakoa, berriz, mamiari begiratzen dio batik bat. Horrek ez du esan nahi ez bata ez besteak bigarren osagaia ahazten dutenik, garrantzia lehenengoari ematen diotela baino. Zuzeneko itzulbidearen teknikak hitzez hitzeko itzulpena, kalkoa eta mailegua dira. Zeharkakoarenak, oster, transposizioa, modulazioa, egokitzapena eta abar. Orain ez ditugu banan-banan aztertuko<sup>1</sup>, hori ez delako, une honetan, helburua.

Zenbait itzultzaile teoriariren iritziz —Carles Duarte i Montserrat<sup>2</sup>, besteak beste—, erro bereko hizkuntzen artean zuzeneko itzulpena erabil daiteke, baina familia ezberdineko hizkuntzen artean ezinezkoa da, itzulpen okerra aterako baikenuke: sustrai ezberdineko hizkuntzen artean zeharkako itzulpenaren teknikak erabili behar ei dira. Beste teknikari batzuek ez dute onartzen zuzeneko itzulpena, ezta jatorri bereko hizkuntzen artean ere —Antonio Argüeso<sup>3</sup>, esate baterako—.

## Itzulpena zertarako

Gure kasuan, euskara eta gaztelania —edo frantsesa (baina hau ofiziala den eremuan euskara ez da)— ez dira hizkuntza ahai-deak. Hargatik, gure itzulpenetan ez gure erabili behar zuzeneko itzulpena, zeharkakoa baizik, adituek ahobatez esaten dutenez. Baina, sakonago joanda, zein da itzulpenaren funtzioa administrazio elebidun nahiz eleantizunetan, hizkuntza guztiek balio<sup>4</sup> bera duten administrazioetan alegia?

Gurean administrazioa elebiduna denez, hizkuntza bietan jaso behar ditu egintza idatziak; hau da, administrazio-egintza euskaraz eta erdaraz adierazi behar du. Itzulpenaren helburua, beraz, ez da gaztelaniazko testuak zer esaten duen euskaldunari jakinaraztea, administrazioaren egintza euskaldunari euskaraz jakinaraztea baino. Herritar euskaldunak euskarazko itzulpena irakurtzen duenean ez du jakin nahi erdarazkoan zer jartzen duen, Administrazioak zer adierazi behar dion baino. Bestetara esanda, itzulpenak ez dio erantzuten ‘zer esaten da gaztelaniazko testuan?’ galderari, ‘zer esan nahi digu administrazioak?’ galderari baizik. Aldea nabarmena da, goitik beherakoa; itzulpenaren xedeak, ezinbestean, itzultzeko era batera ala bestera eroango gaitu eta.

Bereiztu ditzagun hiru elementuak eta hiru egileak: egintza administrazioarena da; erdarazko testua, funtzionarioarena; eta euskarazkoa, itzultzailearena. Administrazio elebidunak bere egintzak erdaraz adierazteko funtzionarioa erabiltzen du; euskaraz emateko, berriz, itzultzailea dauka. Itzultzaileak erdarazko testua itzultzen du; baina, gauzak zuzen esateko: administrazio elebidunean itzultzailea erdarazkoaz baliatzen da egintza hura zertan den jakiteko, eta ondoren euskaraz emateko. Administrazio-egintza bat bera, hainbat modutan eta hainbeste estilotan jar daiteke idatziz; hori azalekoa da, eta apetzakoa, sarritan: erdaraz funtzionarioak bere gogoko testua aterako du segurutik —askotan erretolika ulertezinez josia—, baina itzultzaileak bere testua sortu behar du euskaraz, bere estilo ulergarria erabiltzeko askatasun osoarekin. Itzultzailea lotzen duen bakarra administrazio-egintza da; ez, inondik inora, funtzionarioak idatzitako erdarazko testua. Erdarazkoa tresna hutsa da itzultzailearen eskuetan: muiatz jabetzeko balio diona, baina traba egiten dionean lasai-lasai bazter dezakeena (ikus irudia).

**Erdarazko idazkia tresna hutsa da itzultzailearen eskuetan, traba egiten dionean lasai-lasai bazter dezakeena**



**Jon Agirre Garai**  
Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko burua

<sup>1</sup> Ikus: HAAE. *Hizkera argiaren bidetik*. Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1994, 99. orr. eta hurr., eta bibliografia espezializatua 301. orr. eta hurr.  
<sup>2</sup> Generalitat de Catalunya.  
<sup>3</sup> Universidad Europea de Madrid.  
<sup>4</sup> Ikus: Jose Palacio. *Valor oficial de las traducciones jurídico-administrativas en la Unión Europea*, eta Jon Agirre. *Euskarazko itzulpen juriko-administratiboen balio ofiziala*, in *XV Uda Ikastaroak, VIII Europar Ikastaroak: Itzulpena Administrazioan eta Justizian*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996 (moldiztegia).

# HAEEn idazkien estiloa bateratzeko liburuxka

Aspaldi konturatu ginen HAEEn gure erakundeko estiloa bateratzea behar-beharrezkoa zela. Gurea bezalako administrazio batek hamaika mezu eta informazio zabaltzen du egunero jendaurrera; segur aski, administrazioa da, une honetan, gure herrian testu gehien sortzen duena. Kopuruari begira, ondo dago; kalitateari begira, ordea, duda egiten dugu.

Eta kalitatea esaten dugunean, ez gara bakarrik gramatikaz edota estiloaz ari: erakunde bateko idatzizko produktzioak ez du kalitaterik izango testuen homogeneotasuna zaintzen ez duen bitartean.

## Koordinazioa giltzarri

Gaur egun ez da harritzekoa gure erakundeen barruan idazki-eredu ezberdinak aurkitzea ia bulego batetik bestera. Langile bakoitzak, ohituraren ohituraz era batera idazten du, kontuan izan gabe, askotan, nola idazten duen aldamenekoak.

Horren ondorioak begi-bistakoak dira: erakundeak ez dauka nor-tasun finkorik, ez du zaintzen bere irudi korporatiboa, eta ez du inolako kezkarik erakusten hizkuntzarekiko; hortaz, gure nortasuna eta ardura agerian utzi nahi baditugu, ezinbestekoa da idazki horien kalitatea zaintzea. Garbi dago, gure ustez, zein den horretarako bidea: testu argiak, zuzenak eta txukunak idaztea; baina, horien gainetik bada besterik: administrazio batek testu bateratuak eman behar ditu argitara; alegia, bere koordinazioaren eta eraginkortasunaren erakusgarri diren testuak.

Zuetariko baten batek pentsatuko du, akaso, HAEEn egoera pribilegiatua dela alde horretatik. Oker zabiltzate: artzainaren etxean, tetrabrik. Gure erakundean, orain gutxira arte behintzat, beste hainbat administrazioetako urratu berberak jasan behar izan ditugu: itxura desberdineko testuak, hizkuntza ofizialen erabilera zalantzarikoa etab.

Arazaori aurre egiteko, zenbait zerbitzutako teknikariek osatutako batzorde bat sortzea erabaki zuen HAEEn. Hiru ziren gure batzorde horren zeregin nagusienak:

- HAEEn idazkien corpusa bildu eta aztertzea ( $\pm 500$  idazki).
- Corpusean oinarriturik, gehien erabiltzen diren dokumentuak aukeratzea ( $\pm 15$ ).
- Testu horiek bateratzeko irizpideak ematea.

## Liburuxkaren atalak

Irizpide horiek guztiak nonbait bildu behar, eta estilo-liburuxka bat egiteari ekin genion. Bertan honako eduki hauek jaso genituen:

- **Euskaraz idazteko irizpideak:** komunikazioaren baldintzak, hizkuntza ofizialen erabilera, euskalkiak, tratamenduak, morfojoserakera...
- **Gaztelaniaz idazteko irizpideak:** informazioa antolatze

bideak, testu eraginkorrak sortzeko proposamenak, sexuherriaren aurkako aholkuak etab.

- **Diseinua bateratzeko gomendioak:** hemendik aurrera HAEEn idazkiek izango duten itxura aukeratu genuen (letra-mota, neurria eta bestelakoak, testu-mota bakoitzaren arabera).

- **Idazki-eredu batzuk:** ofizioak, ordain-sariak, faxa, orduen kontrola, ikastaroetarako eskabideak, langileen oporretako txandak, ziurtagiriak...

Behin ikerketa amaituz gero, horri buruzko iritzia eskatu genien zerbitzu guztietako arduradunei, oso garrantzitsua baita beren aldeko jarrera, proiektuak arrakasta izango badu. Nolanahi ere, ezin genituen alde batera utzi lana egunero aurrera ateratzen dutenak: langileak. Horretarako, liburuxka aurkeztu genien, eta baita argi eta garbi azaldu ere bertan jasotako irizpideak ez direla inondik inora normatiboak; aitzitik, bide batzuk zabaltzea nahi dituztela gure erakundeak etorkizunean plazaratzen dituen dokumentuak koordinatuagoak eta hobekiak izan daitezkeen.

Ez dira oraindik bukatu gure eginbeharrak. Une honetan lan bikoitza daukagu eskuartean: alde batetik, administrazio-jardunbideak bateratzen ari gara, eta idazkien plantilak ipintzen gure konputagailuen sarean; hala, langileek, dokumentu bat idatzi behar duten bakoitzean, ez dute zertan denbora eta pazientzia galdu; plantiletara jo, eta hantxe izango dute laguntza ederra. Beste alde batetik, zerbitzu guztietako teknikariek harremanetan jarri gara, euren zerbitzuetako agiri bereziak liburuxkaren irizpideen arabera moldatzen laguntzeko.

Gerora ere badugu zereginik. Aldian-aldean aztertu beharko ditugu gure erakundeak testuak, liburuxkan esandakoak zenbateraino betetzen ari diren jakin ahal izateko.

Aldizkari honetan zein beste argitalpen batzuetan behin eta berriro esan izan da euskal administrazioak ahaleginak egin behar dituela testu onak idazteko, eta herritarrekiko komunikazioa areagotu eta estutzeko. Gure ustez, horretarako bide bat honako hau izan daiteke: erakunde bakoitzak –handi nahiz txiki– bere testuen kalitatea gertu-gertutik kontrolatzea, eta neurriak hartzea kalitate hori bermatzeko. Horretan gabilta HAEEn, eta, gure ustez, beste horrenbeste egon dezakezue zuen lantokietan neurri batean edo bestean.

Agian, gure materiala, xumea izanagatik ere, zuen lan horren abiapuntu izan daiteke. Hori horrela bada, ez zalantzarik izan: harremanetan jarri gurekin, eta bidaliko dizuegu. Hemen gaituzue beti laguntzeko prest.

**Luis Elizondo  
Joseba Lozano  
Enkar Etxazarra  
Joseba K. Pérez de Heredia  
Batzordeko kideak**

**Erakunde bakoitzak –handi nahiz txiki– bere testuen kalitatea gertu-gertutik kontrolatu behar du**

# Zein da zerbitzu publikoen privatizazioak izan behar duen gaindiezinezko muga?



**Joseba Iturbe**  
**ELA Administrazio**  
**Autonomoko arduraduna**

ELAren iritziz, zerbitzu publikoek gizartearen kide bakoitzari bizi-baldintza duinak ziurtatzen dizkion giza azpiegitura bermatu behar dute, aukera-berdintasuna hedatuz, eta marjinazioari eta baliabide urriari aurre eginez. Administrazioak funtzio hauek garatu eta bermatu behar ditu, eta horretarako, sortu eta mantendu egin behar ditu gizarte barruko desberdintasunak orekatzen dituzten zerbitzu publikoak. Honako oinarri hauek defendatu behar ditu administrazioak; zoritzarrez, esperientziak ongi asko erakusten digunez, privatizazio politikak oinarriok hankaz gora jarri, eta lehen aipatutako gaindiezinezko muga hori apurtzen du.

Guk ezin dugu esan privatizazioa honako edo halako punturaino heldu behar denik, hain zuzen ere, privatizazioaren aurka gaudelako. Eta aurka gaude aipatu oinarri horiek errespetatzen ez dituelako. Privatizazioa Ongizate Estatuaren ustezko krisiaren aukera gisa bultzatzen da, irizpide ekonomizista hutsez, kosteak gutxitu nahian, eta eragin sozialak batere kontuan hartu gabe. Gainera, ez da egia privatizazioaren bitartez zerbitzua merkeago ateratzen dela, izan ere zerbitzuaren benetako kosteari, enpresari etekina eta zerbitzua bera mantentzeko aurrekontuetako dirulaguntzak eta zerga-salbuespenak gehitu behar zaizkio. Privatizazioaren bidez atera nahi den "diru azkar" hori lortzeko hobe iruzur fiskalari ekingo balio administrazioak.

## Javier Retegi

### Eusko Jaurlaritzako Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua

Lehian egiteko gai diren enpresak sortzea da privatizatzea baino garrantzitsuagoa. Horixe da funtsezkoena industri sarearentzat, eta ez nor den enpresaren jabea esatea. Beraz, ondo kudeatutako enpresa publikoei ez zaie inolako eragozpenik jarri behar, baina, hori bai, merkatu arauen aurka doazen laguntza apartekorik onartu gabe, noski. Enpresa pribatuaren eta publikoaren arteko alde bakarra bazkide desberdinak dituztela baldin bada eta ez badago ez dirulaguntzarik ezta Estatuko errekurtsoen erabilpenik ere, ez dago zertan arazorik izan.

Beste alde batetik, administrazioak gizarte-funtzioa beharrezkoa den tokian egon behar du beti. Esate baterako, Energiaren Euskal Erakundearen (EVE) menpe dagoen Euskadiko Gas Baltzuak EAEn duen gas-sarearen helburu bakarra ez da etekin ekonomikoa ateratzea, baizik eta gure herriaren garapenerako laguntzea, eta horretarako, oinarriko azpiegitura bat zabaltzen du herri guztietara. Nire ustez, zerbitzu horiek enpresa pribatuaren eskuetan egongo balira, enpresa horiek, askotan, ez lukete inbertsio handirik egingo, oso garestiak direlako. EVEk, ordea, aipatutako irizpideei begiratu, eta inbertsioak egiten ditu.



**Francisco Blanco**  
**CCOOko Politika**  
**Industrialaren idazkaria**

Zerbitzu publikoetan badaude marra edo muga bi ezin gaindi daitezkeenak: alde batetik, zerbitzuen prestazioa eta euren kalitatea; eta, bestetik, enplegua bermatzea, eta, enpresen kasuan, enpresari proiektuak bideragarriak izatea. Gaur egun, enpresa edo zerbitzu publikoak privatizatzea proposatzen denean errentagarri izan daitekeen zerbait buruz ari gara. Gobernuari, berriz, ez zaio inoiz burutik pasako urtegi zerbitzuak privatizatzea, ez baitira inondik inora errentagarriak. Privatizazioaren logika defizita murrizteko kaja egitea besterik ez da, eta, horrela, Maastricht-eko helburuak bete ahal izatea.

Zerbitzu publikoen privatizazioa Ongizate Estatuaren pairatzen ari den eraso nabarmena da, nik uste. Horiek horrela, Estatu horrek lortutako prestazio maila apalari eustea da lehen eginkizuna, izan ere ezin dugu ahaztu gurean maila hori nahikoa kaxkarrak dela Europako beste herri batzuen aldean. Horrekin batera, zerbitzuen kalitateari eutsi, eta lanpostuak bermatu beharra dago.





**Iñaki Etxebarria**  
**Gurutzetako Ospitaleko**  
**zuzendari ererantzalea**

Pribatizazioaren gaiak, pribatizazioaren inguruko eztabaidak, edozein arlotako alderdi garrantzitsuak eta garrantziga-beak zein diren begiratzera garamatza. Enpresa edo zerbitzu publikoen esparruan ere bereizi egin behar dugu zer den garrantzitsua eta zer ez. Eta, hain zuzen ere, garrantzitsua ez den guztiak kanpoko kontratazioaren bidea har dezake, hau da, pribatizazioaren bidea. Baina, noraino irits daiteke pribatizazioa? Aurrerago adierazi dudan bezala, alderdi funtsezkoek esaten digute zein den pribatizazioaren muga; eta muga horrek ez du aldaezina izan behar.

Osasunaren alorrean beste horrenbeste gertatzen da, noski. Hala eta guztiz ere, arlo honetako esperientziak ez dira beste sektore batzuetakoak bezain zehatzak. Nire ustez, osasunean bizkortasun handiagoa lortu behar dugu.

**Mikel Navarro**  
**ESTE-Deustuko Unibertsitateko**  
**Ekonomiako katedraduna**



Gauza asko bereiztu beharko lirateke galderari erantzuteko. Nire iritziz, zerbitzu publikoek gutxieneko zerbitzu batzuk (osasuna, hezkuntza eta abar) bermatu beharko lizkiekete herritar guztiei, beraien maila ekonomikoa kontuan izan gabe. Zein da horretarako bidea? Izaera juridiko publikoa duen erakunde baten bitartez behar du izan nahitaez? Nik uste dut pribatizazioa noraino irits daitekeen esateko kasu bakoitza neurtu egin behar dela; beste era batera esanda, egoera zerbitzuz zerbitzu aztertu behar da pribatizazioari baietza edo ezetza emateko, eta baiezkotan, mugak zehaztu ahal izateko. Ez dago, bada, galdera horri *a priori* eta modu orokorrean erantzuterik.

Hala ere, helburu batzuk kontraesanean egon daitezke. Helburu horietako bat errentaren banaketa dugu, eta beste bat eraginkortasuna da. Bi helburu horiei begira irabazten eta galtzen dena alderatuz erabaki beharko litzateke zerbitzu publikoak pribatizatzea edo ez. Baina, kasu gehienetan, neurketa hauek egin barik daude, eta jendeak iritzi tekniko edo ekonomikoengatik baino gehiago, iritzi ideologiko edo politikoengatik egiten du bata edo bestearen alde. Edozein kasutan ere, ebaluaketa zehatzak ezinbestekoak dira erabaki zuzen eta objektiboagoak hartu nahi badira.



**Mikel Pulgarin**  
**Estrategia Empresarial-eko**  
**kontseilari delegatua**

Edozein pribatizazio eta, zehazkiago, zerbitzu publikoen pribatizazioak beharrezkoak diren ala ez, onak ala txarrak eta abar esatea, zentzu handirik gabeko eztabaida izan daiteke baldin eta auzitan jartzen den zerbitzu publikoaren jatorriaren kausak aztertzen ez badira. Badaude, nik uste, bi arrazoi garrantzitsu zerbitzu bat nazionalizatzeko: lehenengoa helburu estrategikoei lotuta dago. Hau da, sarri askotan halako herri bati zerbitzu jakin batez arduratzea interesatzen zaio. Bigarrena, berriz, puntualagoa eta pragmatikoagoa da, eta badu zerikusirik gizarte eta lan egoerarekin.

Nire iritziz, jarduerak, zerbitzuak edota enpresak oraindik ere jarraitzen baldin badu estrategikoa izaten, zentzuzkoa da botere publikoen menpe egotea. Nazionalizazio hark behin-behineko egoera baten ondorioz egin bazen, hau da, gizarte egoera bati begira eta ez, ordea, helburu estrategiko batzuei, orduan arazoa bestelakoa da. Hortaz, lehenik eta behin kontuan hartu beharko genuke behin-behineko egoera horiek aldatu diren ala ez; eta hori horrela bada, merkatura itzuli beharko dugu aspaldian merkatuaren menpe egon zena.

**Enrique Portocarrero**  
**Círculo de Empresarios-eko**  
**zuzendaria**



Pribatizazioari buruz ari garelarik, sektore publikotik pribatura egindako transferentzia aztertu behar dugu. Arlo publikoko enpresa eta zerbitzu guztiak ez dira berdinak. Argi dago batzuk pribatiza daitezkeela eta beste batzuk, berriz, ez. Pribatizazioaren muga zehaztu ahal izateko bi alderdi hartu behar ditugu kontuan: batetik, ez dago etekinak ematen ez dituen enpresa edo zerbitzurik pribatizatzerik. Horrek ekimen pribatuaren logikari erantzuten dio, jakina. Bestetik, gizarte-funtzioak betetzen dituzten zerbitzu publikoak ditugu.

Zein zerbitzu publiko pribatiza daiteke? Ez da inolaz ere erraza esaten. Har dezagun adibide bat: esaterako, osasun zerbitzuen pribatizazioa. Gauza zaila da bat-bateko pribatizazioa burutzea, jakina; baina erregimen mistoak egin daitezke, ordea. Nire ustez, pribatizazioen politikak ez du estatikoa izan behar, hau da, ez du zertan kaja-operazio bihurtu.

# Sare lokalak nagusi Eusko Jaurlaritzan

Informatikak sor dezakeen problemarik nagusienetakoa gizakiaren isolamendua omen da. Arazo honek norbanakoa gainditu eta erakunde batera zabaltzen bada, alegia, helburu bateratuak dituzten eremuetara proiektatzen bada, gureak egin du. Sareak dira hondamendi horretatik atera gaitzaketenak, gure kobazulo birtualen artean pasabideak irekiz, eta gure irla informatikoen artean zubiak eraikiz.

Konputagailuen sareen sorrerak ez gaitu ustekabeen harrapatu, informatikaren arloan izan den garapenaren ondorio logiko eta zuzena delako. 60ko hamarkadako lehen konputagailu izugarri, erraldoi eta geldoen ondoren, askoz ere txikiagoak diren PC azkarrak azaldu ziren 80koan. PCak iraultza berri baten protagonistak izan ziren, ia-ia giza itxurazko logikaz ikasi eta pentsatzeko gauza baitziren. Edonola ere, garapen aldakor hori ez zen orduan ere eten, eta gaur egun, mende berriaren atarian, sareen azpiegiturak aprobetxatuz, gizakien arteko komunikazioa errazten duen egundoko tresna bihurtu da konputagailua.

Hobekuntza etengabe honen ondorio gisa, 1992an Eusko Jaurlaritzan WANG minikonputagailuak bazterten hasi ziren, eta horien ordez, PCz osatutako sareak ezarri. Horretarako, EJko bulego guztietan aurki zitezkeen terminal tuntunek utzitako hutsuneak PCEkin betetzen hasi ziren. Geroztik, nolabaiteko berezko adimena duten PC hauek, elkarrekin konektatuta, sareez osatutako egitura korapilatsuak eratu dituzte, eta pixkanaka-pixkanaka EJko langile guztiongana heldu dira.

Konputagailua langilearen luzapen fisikotzat jotzen badugu –beroni anputatutako gorputz-ataltzat nonbait–, sarea bulego ikustezina eta birtuala dela esan genezake, espaziotik kanpo existitzen den zer bait.

Sare bat eraikitzeko arrazoi nagusia informazio asko batera eta eskuragarri edukitzean datza. Sarean egoteak abantaila ugari ditu; besteak beste, ez da beharrezkoa paperekin eta disketeekin atzera eta aurrera ibiltzea, bai hardware- (inprimagailuak, beste sareetarako sarbideak, ...) bai software-baliabideak (pertsonek askorentzako aplikazioak, datu-baseak, ...) jende askoren

artean erabiltzea ahalbidetzen du eta. Telelanaren funtsak horixe du jatorria, esate baterako. Horretaz gain, erabiltzaile guztiek elkarri bidal diezazkiokete mezuak posta elektronikoaren bidez; Jaurlaritzaren kasuan horretarako dago cc:Mail programa, behar baino askoz gutxiago erabiltzen badugu ere.

Sare bat  
eraikitzeko arrazoi  
nagusia informazio  
asko batera eta  
eskuragarri  
edukitzean datza

## Zer da LAN bat?

EJko sail, ordezkari eta erakunde autonomiadun guztietan dauden sare lokal edo LAN (Local Area Network) hauek honako egitura orokor honetan oinarrituta daude:

- PC bezeroak (386 edo 486). Bertan norberak bakarrik erabiltzen dituen aplikazioak eta fitxategiak daude.
- Novell zerbitzaria. Sarea mantentzeko behar den softwarea gordetzen du.
- Unix-Oracle zerbitzaria. Langile-talde batek erabiltzen dituen aplikazioen datu-


-baseak daude hemen.

- Postarako pasabidea. Posta elektronikoa kudeatzeko tresna.
- Inprimagailuen zerbitzariak.
- Router-a. Beste sareetarako zubia da, kanpora ateratzeko atea.

EJko sareen arkitektura Bezero/Zerbitzari motakoa da; hots, konputagailu bakoitzak ahalmen handiko beste bati bidaltzen dio informazioa, azken honetara sarearen gainontzeko konputagailuak konektatuta daudelarik. Aplikazioen datu-baseak ere sarean daude, Unix zerbitzarietan, baina programak PCetan bertan exekutatzen dira.

Sare hauek guztiak EJren 35 eraikuntzatan daude, eta elkarri lotuta daudenez, sare zabalagoa osatzen dute, alegia, WAN (Wide Area Network) izenekoa. ISDNn (Integrated Services

Digital Network) oinarrituta dagoen sare korporatibo honetan ahotsa (telefonoak) zein datuak (konputagailuak) mugitzen dira alde batetik bestera. Arabako sareak 64Kb-tako abiaduraz konektatzen dira Lakuako zerbitzariara; Bizkaikoak Gran Vía-ko egoitzara, eta Gipuzkoakoak Easora jotzen dute, izar-itxurako hiru egitura eraturik. Hiru izar hauek ere elkarri lotuta daude. Lakuatik Donostia eta Bilbora doazen lineak 512Kb-takoak dira, eta eraztuna ixteko asmoa dago Donostia eta Bilboren artean beste konexio bat eraikiz. Hori horrela, Gasteiz eta Donostia lotzen duen konexioa moztuko balitz, aukera



Sare lokal baten eskema orokorra

izango litzateke informazioa Donostiatik Bilbo-  
ra bidaltzeko. WAN sare hori Lakua eta EJIEn  
artean dagoen 100Mb-tako konexioarekin osa-  
tzen da. Guztira, gutxi gorabehera, 2.300 kon-  
putagailu daude Jaurlearitzaren sare hauetara lo-  
turik, 55 Novell fitxategi-zerbitzari, eta da-  
tu-baseak gordetzen dituzten beste 35 Unix-  
-Oracle zerbitzarietara; hori guzti hori,  
EJIEko Luis Latxiondo jaunak emandako da-  
tuen arabera.

**Konputagailua  
langilearen  
luzapen fisikotzat  
jotzen badugu,  
sarea bulego  
ikustezina eta  
birtuala dela esan  
genezake**

### Windows garaile

Aipaturiko 2.300 PC horiek Windows ingurune-  
an murgildurik daude. Gauza jakina da programa hau Microsoft-  
en erantzuna izan zela, Apple-k kaleratutako Macintosh-en arra-  
kastari aurre egiteko. Macintosh sistema eragile grafiko eta intui-  
korra denez, PCaren lehiakide gogor bihurtu zen, azken honek  
DOSean eta bere komando ilun eta kriptikoetan oinarritzen  
baita. Windows-ek izandako harrera ona 1992az geroztik finkatu  
zen 3.1 bertsio berriarekin, EJK hautatutakoa hain zuzen ere.  
Baina Microsoft konpainiak erabiltzaileari ingurune errazagoa  
eskaini nahi zion, batez ere, software eta hardware berria konfi-  
guratzeko eta instalatzeko garaian, eta horrexegatik jaiotzen  
Windows95. Gaur egun Jaurlearitzaren aplikazio guztiak Win-  
dows95ean lan egiteko gai diren neurrian, sistema eragile horre-  
tara pasatuko gara, eta konputagailuekin euskaraz ere hitz egin  
ahal izango dugu.

EJK eman dituen pausoak baliabide informatikoak testu-modutik  
irudi-modura aldatzeko beste eremu batean ere izan du eraginā:  
erabiltzaileei eman beharreko prestakuntzan. Windows erabiltzea  
guztiz erraza da, baina are gehiago alde aurretik azalpenak ematen  
badira, jakina. Prestakuntza honetaz EJIE eta HAEE ardura-  
tzen dira, eta era guztietako ikastaroak antolatzen dituzte Win-  
dows-eko tresnak erabiltzen ikasteko: Word, Excel, Access, e.a.

### Sareak XXI. mendean: PC vs NC

Konputagailuen sareen etorkizunari begira, ondorengo galdera  
datorkigu burura: adimen digitala non gordeko da etorkizunean,


konputagailuetan edo sareetan? Horren aurrean  
erantzun kontrajarriak daude. Alde batetik, Bill  
Gates-en jarrera dago, Microsoft-eko lehendakari-  
a, eta munduko software-produzitzailerik han-  
dienaren burua. Bere ustez, etorkizunean ere  
PCak geroz eta gehiago handiagotuko dira, hard-  
ware merkeagoaz osatuta eta software irudiko-  
rragoaz hornituta. Bestela pentsatzen du Larry  
Ellison, Oracle konpainiaren lehendakariak.  
Munduko bigarren konpainiaren buru den Elli-  
son jaunak PCaren beherakada aurrikusten du,  
eta horrekin batera, baita Microsoft-ek lidera-  
tzen duen aplikazio eta sistema eragileen soft-  
ware-merkatuarena ere. Bere ustez, PCen ordez

NCak izango ditugu (Network Computer edo sare-konputagai-  
luak), hau da, terminal inozo, ximple eta merkeak, jakinduria guz-  
tia informazioa banatzen duen sarean kokatuko baita.

Nahiz eta NCak apirilean Amsterdam-en aurkeztutako tresna  
berriak izan, egia esan ideia ez da batere berria, telefonoak eta  
telebistak horrela funtzionatzen baitute. Informazioa sarean ber-  
tan egongo denez, eta ez terminalean, erabiltzaileek software-  
-eskaintza zabalagoa izango dute. Horrela, sareen sarea den  
Internet-eko baliabideak xurgatuko dituzte NCek, erabiltzaileari  
era askotako zerbitzuak eskaintzeko. Nolanahi ere, kontuan har-  
tzen badugu Oracle-k sareen softwarea produzitzen duela garbi  
dago ez bata eta ez bestea ezin izan daitezkeela oso objektiboak;  
edozein modutan ere, euren iritziek ondo asko erakusten dizki-  
gute gaiaren nondik-norakoak.

Ez dugu sakonduko, ez, datorren gizaldian argituko den kontu  
batean; bai, ordea, EJK epe laburrera dituen asmoetan. Dagoene-  
ko asmo horietako bat bete egin da, EJren presentzia Internet sa-  
rean errealitate bihurtu da. Hori lortzearen, zerbitzari bat presta-  
tu dute, Jaurlearitzari buruzko informazioa munduan zehar ba-  
rreiatzeko. Horrekin batera ezin ahaztu ondorengoa: plangintza  
horren barruan EJko langileok laster izango omen dugu Internet  
sarearen abantailez baliatzeko aukera.

**Luis Elizondo**  
**HAEEko Prestakuntzako teknikaria**



EJKo egoitzetako sare lokalen arteko konexioa

### **Euskararen erabileraren normalkuntza prozesuaren ebaluazioa euskal herri administrazioetan**

**Kultura Saila  
Eusko Jauriaritza  
Vitoria-Gasteiz, 1996  
283, 55 orr.**

Hizkuntza Politikarako Sailordetzak egindako txosten honek administrazioio euskalduntze prozesuaren lehen plangintzaldia hartzen du oso-osorik; beraz, baliabide egokia da orain arte herri administrazioetako euskararen normalkuntzan egindako lana ezagutzeko. Liburuan, lehenik eta behin, plangintzaldiaren diagnostikoa egiten da. Gero, hizkuntz eskakizunik egiaztatu ez duten langileen egoeraren berri ematen da. Jarraian, egitasmoaren garapenari buruzko gorabeherak aztertzen dira, ondorioetara iritsi baino lehen. Azken atala eraskina da, eta bertan, erakunde bakoitzak plana zenbateraino bete duen aurkituko dugu, beste zenbait datuekin batera.

### **Murgiltzea eta irakaskuntza elebiduna**

**Bilbatua, M.; Cenoz, J.; Idiazabal, I.; Sainz, M.; Sierra, J.  
Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Vitoria-Gasteiz, 1996  
152 orr.**

Liburu honek bigarren hizkuntzaren irakaskuntza eta murgiltze-programei buruzko zenbait artikulua biltzen ditu. Egileak atzerriko adituak dira, eta ondorengo tokietako egoerak aztertu dituzte: Suitza, Aosta (Italia) eta Kanadako. Artikuluak auzerakerakoan, hizkuntzaren didaktikan gaurkotatzen duten arazo zehatzak izan dituzte gogoan argitalpena prestatzeko arduradunek. Aberasgarria izan daiteke, benetan, beste toki batzuetan bigarren hizkuntzen irakaskuntzaren alorrean zer egiten ari diren jakitea, izan ere, nahiz eta gurean esperientzia handia izan, beti izaten da aukera ikerketa eta gogoeta berrietatik zerbait ikasteko.

### **El bilingüismo en el estado español**

**Etxebarria, M.  
Ediciones FBV, S.L.  
Bilbao, 1995  
495 orr.**

Liburu honetan elebitasuna jorratzen da, baina egileak berak azaltzen digunez, soziolinguistikaren ikuspegitik. Bi zati nagusitan banatzen da: lehen zatian elebitasunari buruzko zenbait gai lantzen ditu; esate baterako, norbanakoen elebitasuna, elebitasun motak, elebitasuna neurtzeko galdera-sortak, elebitasuna gizartean, komunitate elebidunak, hezkuntza elebiduna etab. Bigarren zatian, berriz, Espainiako komunitate elebidunak aztertzen ditu: bakoitzaren egoera soziolinguistikoa, bertako hizkuntzaren egoera administrazioan, hezkuntzan, komunikabideetan, kultur produkzioan etab.

### **Llibre d'estil de l'Ajuntament de Barcelona**

**Solà, J.  
Ajuntament de Barcelona. Regidoria  
d'Edicions i Publicacions.  
Barcelona, 1995  
310 orr.**

Bartzelonako Udalak argitaratutako estilo liburu honek garrantzi berezia du katalanera administrazioan finkatzeko orduan, Kataluniako udaletan Bartzelona baita handiena, eta, hala, gaitzaren ispilu eta eredu. Edukiari dagokionez, estilo liburu honetan, gutxi gorabehera, horrelako argitalpenetan lantzen diren puntuak aztertzen dira: gramatika kontuak, puntuazioa, letra larria eta xehea noiz erabili, laburdurak eta beste. Bartzelonako Udalak egindako ahalegina baliagarria izan daiteke handik zenbait ideia hartu eta gure lanean erabiltzeko, edo are gehiago: gure estilo liburu egiteko.

### **Drets lingüístics i drets culturals a les regions d'Europa. Actes del Simposi Internacional**

**Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura  
Barcelona, 1995  
126 orr.**

1992an Europako hizkuntz eskubideei buruzko jardunaldi batzuk egin ziren Gironan, eta ekitaldi horretako hitzaldiak dira, alegia, liburu honetan biltzen direnak. Jardunaldiotan bi hitzaldimota izan ziren: alde batetik, gai orokorrari heldu zioten hizlariak, eta hizkuntz eskubideak hainbat alorrean zenbateraino betetzen diren azaldu zuten; beste aldetik, gai nagusitik aldendu gabe, Europako toki batzuetako egoera zehatza aztertu zen, hala nola, Nafarroakoa, Galesekkoa, Bruselakoa... Badakizue, beraz: liburu benetan interesgarria eskura dezakezue, Europako hizkuntzen berri sakona izan nahi badazue.

### **Como escribir y publicar trabajos en ciencias de la salud**

**Edward J. Hurth  
Ediciones científicas y técnicas, S.A.  
Barcelona, 1992  
262 orr.**

Ondo idaztea gauza zaila da baita eskarmentu handia dutenentzat ere. Are zailagoa, gainera, gaia bera korapilatsua baldin bada. Medikuntzaren eta osasunaren inguruko gaiak jorratzen dituzuenok liburu honetan aurkituko dituzue eragozpen batzuk gainditzeko bideak. Artikulu edo liburu bat idazteko gomen-dioekin hasi, eta bukatu, argitalpena kaleratu aurretik egin beharreko inprentako zuzenketekin bukatzen da. Prozesua bere osoan. Merez du.



# Hitz gezidunak

Eskiatzen duena	Bizkaiko herria	Mezuak igortzeko teknika	Elbarri	Halere
Asteko egun bat	Gutizia	Gauero egiten dugu	Omogabe mota	Nuen, haiei
Kirol egilea				
Herri handi		Errege, hitz elkartetan		
		Barazki mota		
Garaiak			Niri	
Intsektu mota			Kasik	
		Iparaldean zein		Potasioa
		Detektagailua		Gaiso
Zaborra				Bokala
Baldintzetan				Bete
	Sexu eme		Ardi, hitz elkartetan	
	Nitrogenoa		Emakume izena	
Asiako estatua				
49				
	Nafarroako herria			Urania
	Kirol mota			Ald., molibdenoa
Ibai txiki				Ald., Italiako ibaia
Egun				Izan
			Bokala	
			Utik!	
			Infin., umatu	
			Ihardun	
Euskal sindikatu abertzalea	Gaiak			500
	Ald., dago			Nafarroako autoetan
		Albaniako hiriburua		
		Lehenengo		
Errepidean laguntzeko elkarte ezaguna			Pl., zango atala	

LUMA

## Galdereak - sorta

❶ Non dago Pernambuco?

- A Brasilen
- B Australian
- C Argentinan
- D Filipinetan

❷ Ondorengo nobela-mota hauetatik zein da fantasiaren alde ilunenak joratzaren dituena eta morboaz eta izuaz baliatzen dena?

- A Nobela erromantikoa
- B Nobela historikoa
- C Nobela gotikoa
- D Nobela psikologikoa

❸ Manuel Lekuona saria euskal kulturaren alde lan oso bat edo bizitza osoa eman duen baten bati banatzen zaio. Zeinek ematen du saria?

- A Eusko Jaurlaritzak

B Eusko Ikaskuntzak

- C Euskaltzaindiak
- D Bilboko El Sitio elkarteak

❹ Orain dela gutxi Euskal Herriko musika talde batek kontzertu bat eman zuen Getxon, bere 25. urteurrena ospatzeko. Zein da talde hori?

- A Mocedades
- B Los Brincos
- C Oskarbi
- D Oskorri

❺ Nork du gaur egun orduko errekorra txirindularitzan?

- A Boardman-ek
- B Rominger-ek
- C Indurainek
- D Chiquito de la Calzadak

❻ Hizkera jasoan nola deitzen zaio bere ahalmenak neurritz kanpo baloratzen dituenari?

- A Dipsomanoa
- B Melomanoa
- C Megalomanoa
- D Mitomanoa

❼ Nork bahitu zuen Helena, eta ekin-tza horren ondorioz, Troiako gerrari hasiera eman?

- A Priamok
- B Akilesek
- C Menelaok
- D Parisek

❽ Lokian, belarri gainean alegia, kolperen bat hartuz gero, zein hezurretan hartzen duzu kolpe hori?

- A Okzipitalean

## Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/42 91 66
- EKB: 943/46 66 50
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/27 82 69
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/681 66 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 07-33-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/37 15 45
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/42 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/18 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailordetza: 945/18 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/18 76 56. Fax: 945/18 76 03
- Kultura Saila: 945/18 94 64
- Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia: 948/10 71 84
- UZEI: 943/47 33 77

# G o i t i b e h e r a

Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondorengo hitzaren anagrama da. Zer da anagrama bat? Hitz baten letrak beste era batera ordenatu ondoren lorturiko hitza: naiz/zain/zina.

1  
2  
3  
4  
5  
6  
7  
8  
9  
10  
11

LUMA

1  
2  
3  
4  
5  
6  
7  
8  
9  
10  
11

LUMA

1. Ekaitz. 2. Eraitsi, behera bota. 3. Estuasuna, larrialdia.
4. Itxaropena. 5. Zazpi eguneko denbora tarte.
6. Juntagailua. 7. Ehun mota. 8. Ohe batean edo beste tokiren batean gorputza horizontalean jarri. 9. Zerbaiterako trebetasuna. 10. Modu beretsuan. 11. Etzan arazia.

1. Zoru gaineko zikinkeriak biltzeko tresnak. 2. Zailtasunik gabeak. 3. Otzara handiak. 4. Abiada handian. 5. Zaude.
6. Barazki mota. 7. Auzo, hitz elkartean. 8. ...izan, gai izan.
9. Etzanda gaude. 10. Geza bihurtua. 11. Ezagumendua.

## S o l u z i o a k

**G o i t i b e h e r a**

**Galdiera - sorta**  
0A/0c/0B/0d/0A/0c/0D/0B/0B/0A

**Hitz gezidunak**



Luis Barreiro Asumendi  
TELEBERRI

**ETB**

**informazioan**

**AURRENAK**



Xabier Euzkitze  
GAUR EGUN

Besteak beste,  
honako zerbitzu  
hauek eskaintzen  
dizkizuegu:

- Euskal administrazio publikoetako langileen hautaketa.
- Langileen etengabeko prestakuntza.
- Hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko azterketak.
- Langileak euskalduntzeko eta alfabetatzeko saioak.
- Administrazioko hizkeraren garapena.
- Itzulpen, interpretaritza eta terminologi lanak.
- Administrazio eta zuzenbideari buruzko azterlan, ikerketa eta argitalpenak.

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

- 1 Segidako aginduari izenburua falta zaio. Agiriaren azalpenean eta xedapenean jasotakoarekin bat, ipini izenburu egokia.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA  
3468

Bigarren mailako irakaskuntzako irakasleak, lanbide-heziketako irakasle teknikoak eta hizkuntz eskola ofizialetako irakasleak tokiz aldatzeko lehiaketa zela eta, epaimahaikideak aukeratzeko zozketa iragarri zuen 1991ko azaroaren 16ko Erabakiak (azaroaren 27ko EHAA).

Zozketa egin ondoren, honako hau

ERABAKI DUT:

Atal bakarra.- Epaia ematen parte hartuko duten kideen zerrenda argitara ematea.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko abenduaren 1a

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria  
PLACIDO DE BLAS VAZQUEZ

- 2 Ondorengo aginduaren izenburua aposizioz beteta dago, eta, beraz, trinkoegia da. Berridatzi bi zatiotan: lehenengoan, agindua noizkoa, norena eta zertarako den argitu; bigarrenean, gainontzekoa erantsi.

AGINDUA, 1994ko maiatzaren 2koa, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuarena, martxoaren 17ko 70/1993 Dekretuaren bidez (1993ko martxoaren 28ko EHAA) eta hori garatzeko 1993ko ekainaren 15ean emandako Aginduaren (1993ko uztailaren 3ko EHAA) eta 1993ko urriaren 11ko Aginduaren bidez (1993ko urriaren 20ko EHAA) araututako dirulaguntzak jasoko dituztenen zerrendak argitaratzen dituena.

- 3 Oraingoan agindu honek baditu izenburua eta xedapena. Osatu azalpen-zatia datu hauetaz baliatuz.

- Euskal Autonomi Elkarrekin aginpide oso-oso du industri gaietan.
- Aginpide hori Autonomi Estatututik datorkio.
- Estatutuaren 10.30 atalean ezartzen da, hain zuzen, aginpide hori.
- Estatutua lege organikoaren onartu zen (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa).
- Industriaren kalitateari eta segurtasunari buruzko hainbat alderdi dekretuz arautu ziren (azaroaren 25eko 275/1986 Dekretua).
- Industri Administrazioaren Zuzendaritzak zenbait aparailu-motaren erregistroa egin zuen.
- Erregistro hori azaroaren 25eko 275/1986 Dekretuaren indarrez egin zuen Zuzendaritzak.
- Hainbat arautegi teknikoren eta berauen garapenerako xedapenen arabera erregistratu zituen aparailuak.

# A R I K E T A K

## A D M I N I S T R A Z I O I D A Z K I A K

*INDUSTRIA ETA ENERGIA SAILA*  
2546

*ERABAKIA, 1992ko azaroaren 9koa, Industri Administrazioko zuzendariarena. Beronen bidez, zenbait aparailu-motaren erregistro-zerrenda argitara ematen da.*

-----  
-----  
-----  
-----

*Beraz, herritarrak jakinaren gainean jartzeko, honako hau*

*ERABAKI DUT:*

*Atal bakarra.- Eraskinean ageri diren aparailu-moten erregistroa argitara ematea.*

*Vitoria-Gasteiz, 1992ko azaroaren 9a*

*Industri Administrazioko zuzendaria*  
*MARIA LUISA FUENTES ALONSO*

**4** Ondorengo aginduak baditu izenburua eta azalpena, baina xedapena falta zaio. Egin ezazu zati hori, izenburuan eta azalpenean jasotakoarekin uztarturik eta beste datu hauek ere kontuan harturik.

- Zer egin dezakete interesdunek?
  - Berraztertze errekurtsoa aurkeztu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik.
- Nori aurkez diezaioke errekurtsoa?
  - Hirigintza eta Etxebizitza sailburuari.
- Zein epetan?
  - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu egunaren biharamunetik hasi eta hilabete barru.

**HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA**

3631

*AGINDUA, 1992ko azaroaren 25ekoa, Hirigintza eta Etxebizitza sailburuarena. Beronen bidez, Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari-lanpostua betetzeke uzten da.*

*Hirigintza eta Etxebizitza sailburuaren 1992ko ekainaren 15eko Aginduz (irailaren 21eko EHAA) deialdi irekirako iragarpena egin zen.*

*Iragarpenean adierazten zenez, Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari-lanpostu bat, 102002 kodeduna, aukerako izendapenez bete behar zen.*

*Deialdian ezarritako epearen barruan aurkeztutako eskabideak azterturik, lanpostu horren baldintzarik betetzen duenik ez dela ikusi da.*

*Beraz, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeari jarraiki, honako hau*

**ERABAKI DUT:**

Atal bakarra.-----  
-----  
-----

*Vitoria-Gasteiz, 1992ko azaroaren 22a*

*Hirigintza eta Etxebizitza sailburua  
PATRICIA BEITIA GARAI*

**5** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua zara, eta egoera honetan zaude:

- 1991/92 ikasturterako hezkuntza-itunerako deialdia argitaratu zen (1991ko azaroaren 12ko Agindua).
- Ikastetxe bakoitzari zegokion dirulaguntza ezarri zen (1992ko apirilaren 3ko Agindua).
- Itunpeko hainbat ikastetxek auzia jo zuen agindu horren aurka, eta horretarako berraztertzeke errekurtsua aurkeztu zuten.
- Auzi horretan aginpidea duen organoak errekurtsu horiek aztertu, eta horiei buruzko erabakia eman du.

Egoera horren aurrean, zeuk, sailburua zaren aldetik, erabaki hau hartu duzu 1992ko azaroaren 24an:

- Errekurtsua onartu zaien ikastetxeen zerrenda argitaratzea (hezkuntza-maila bakoitzean aitortzen zaizkien dirulaguntzak I. Eraskinean zehaztuz).
- Errekurtsua onartu ez zaien ikastetxeen zerrenda argitaratzea (II Eraskinean ezezkoaren arrazoiak emanez).

Hori guztia kontuan harturik, idatzi 351 Erabakia.

# S O L U Z I O A K

- 1 ERABAKIA, 1992ko abenduaren 1ekoa, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena. Erabaki honen bidez, bigarren mailako irakaskuntzako irakasleak, lanbide-heziketako irakasle teknikoak eta hizkuntz eskola ofizialetako irakasleak tokiz aldatzeko lehiaketarako epaimahaikideen zerrenda argitaratzen da.
- 2 AGINDUA, 1994ko maiatzaren 2koa, Lehendakari-tza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuarena. Beronen bidez, dirulaguntza jakin batzuk jasoko dituztenen zerrendak argitaratzen dira.  
  
Hona hemen dirulaguntza horiek jaso ahal izateko betebeharrak eta gainontzekoak arautzen dituzten xedapenak:  
  
- Martxoaren 17ko 70/1993 Dekretua (EHAA, 1993-03-28).  
- 1993ko ekainaren 15eko Agindua (EHAA, 1993-07-03), aurreko dekretua garatzen duena.  
- 1993ko urriaren 11ko Agindua (EHAA, 1993-10-20).
- 3 Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaz onartu zen Autonomi Estatutua, eta beronen 10.30 atalean jasotzen denez, Euskal Autonomi Elkar-teak aginpide oso-oso-a du industri gaietan.  
  
Geroztik, azaroaren 25eko 275/1986 Dekretuaz arautu egin ziren Industriaren kalitateari eta segurtasunari buruzko alderdiak.  
  
Horrela bada, dekretu horren indarrez, Industri Administrazio-ko Zuzendaritzak zenbait aparailu-motaren erregistroa burutu zuen, arautegi teknikoek eta berauen garapenerako xedapenak ezarritakoari jarraiki.
- 4 Atal bakarra.- Aukerako izendapenez bete behar zen Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari-lanpostua (102002 kodeduna) betetzeko uztea.  
  
Agindu honen aurka interesatuek auzia jo nahi izanez gero, berraztertze-ko errekurtsua aurkeztu ahal diote Hirigintza eta Etxebizitza sailburuari, erabaki hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu egunaren biharamunetik hasi eta hilabete barru. Errekurtsu horretaz gain eta ondoren, administrazio-arekiko auzi-errekurtsua ere aurkeztu ahal dute.

5

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA 351

AGINDUA, 1992ko azaroaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Agindu honen bidez argitaratu ematen da ikastetxe-iek dagokien dirulaguntza ezartzen duen aginduaren aurka itunepeko hainbat ikastetxek aurkeztutako berraztertze-ko errekurtsoen erabakia.

1991ko azaroaren 12ko Aginduaren bidez, 1991/92 ikasturterako hezkuntza-itunerako deialdia argitaratu zen.

Agindu horren arabera, 1992ko apirilaren 3ko Aginduaren bidez, ikastetxe bakoitzari zegokion dirulaguntza ezarri zitzaion.

Horren aurrean, itunepeko hainbat ikastetxek auzia jo zuten 1992ko apirilaren 3ko Aginduaren aurka, berraztertze-ko errekurtsua aurkeztuz.

Auzia erabaki ahal izateko zegokion organoak errekurtsu horiek aztertu eta bere epaia proposatu zuen. Horiek horrela, honako hau

### ERABAKI DUT:

1. atala.- Errekurtsua onartu zaien ikastetxeen zerrenda argitaratzea, hezkuntza-maila bakoitzean aitortzen den dirulaguntza zein den zehaztuz (I. Eraskina).

2. atala.- Errekurtsua onartu ez zaien ikastetxeen zerrenda argitaratzea, ezezkoaren argibideak emanez (II. Eraskina).

Vitoria-Gasteiz, 1992ko azaroaren 24a

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua  
(zeure izena)